

400 pezeta.  
15 libera

# hik hasi

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

19

1997ko ekaina

Hezkuntzako  
beste hezitzaileak  
gaia

Bertsolaritzaz  
elkarrizketa

Eskola txikiak  
Gehigarria

Nerabetasuna  
aztergai

Argitaratzailea:

## XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,  
2. Pabilioia. 20.160  
LASARTE-ORIA  
GIPUZKOA.  
Tel: 943/ 37.15.45  
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95  
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:  
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio batzordea:  
Ainhoa Azpiroz, Mikel Estonba,  
Arantxa Goiburu,  
Mari Karmen Irastorza,  
Maite Saenz, Fito Rodriguez,  
Kristina Mardaraz,  
Xabier Sarasua, Itziar Goñi,  
Joxi Oiarbide,  
Ane Miren Miralles,  
Arantxa Urbe eta Juanjo Otaño.

Aholkulariak:  
J. A. Zubeldia,  
Manuel Arregi,  
Mariam Bilbatua,  
Xabier Isasi, Irene Lopez,  
Izaskun Madariaga,  
Kepa Perez Urraza,  
Begoña Bilbao,  
Lore Erriondo,  
Jaione Apalategi eta  
Pruden Sudupe.

Diseinua:  
Zart

Maketazioa, fotomekanika:  
Xangorin.

Inprimategia:  
ANtza S.A.L.

Azaleko argazkia:  
Ikor Kotz

Hezkuntza, Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailak Onetsia  
1.997/VI/9

Kopurua: 3.500 ale

**5** Editoriala

**6** kronika

**8** gaia

HEZKUNTZAKO BESTE HEZITZAILEAK

**14** elkarrizketa

Bertsolaritzaz.

Mikel Mendizabal eta Jon Lopategi.

**21** Ekarpena

Haurtxoteka. Jose Arana Ikastola.

**23** Gehigarria

Eskola txikiak. Gernika aldea.

**28** Solasean

Bakegintzarako hezkuntza hizpide.

Miguel Angel Zabalza.

**34** Ekarpena

Nerabetasuna.

Jaume Funes.

**37** Berriak

**42** Esperientzia

San Jose de Calasanz

Ikastetxe Publikoa.

hik hasi ez ditu bere gain hartzen  
laguntzaileek plazaratutako iritziak  
ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

COUNCIL OF EUROPE-  
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg  
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso  
du Europako Kontseiluaren "lurraldeen  
arteko lankidetzarako sustapena" pro-  
gramaren barruan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Kanpo Aharmentzatze eta Irakuntza Nagusia

PRESIDENCIA

Secretaría General de Acción Exterior

Argitarapen berritzaileko laguntzaile:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

gipuzkoar diaspora kulturaren  
gizarte-akuntza

Handik eta hemendik euskal eskakizunei erantzun behar nonahi.

E K A I N A

e d i t o

r i a l a

**M**

ilurte berrirantz jarriak garen honetan jadanik inork ezingo gaitu sines-tarazi Euskal Herriko herritar orok bi hizkuntzak eza-

gutzeko eta menperatzeko dugun eskubidea bermatzeko eskolaratzea euskaraz egitea ezinbestekoa ez denik.

Klandestinoki sortutako lehen ikastola haietan euskara zaindu, erein eta ernetu zenetik ezin uka aurrerapauso handiak eman ez direnik. Konforme. Baina ez dezala inork bere burua engaina. Azken egunetan gertatutakoa lekuko. Ohitzen hasiak gara ikastolen aurkako erasoak nonahitik entzutera baina badirudi zenbait erakunde eta talde politikoak prest daudela euskalduntzearen alde agertu eta lanean diharduen edozeinen aurka ekiteko.

Herri honetako agintea bere esku duen inork ezin ditu begiak itxi euskal ereduaren alde herritarrek egin duten hautua eta herriarengandik euskalduntzearen alde sortutako bultzadaren aurrean.

Behingoz gure herria gobernatzen duten administrazio ezberdinek duten erantzukizunari heldu beharko liokete eta euskal eskakizunei egoki erantzun-


go dion plangintza ausarta burutu beharko lukete. Modu bakarra da arazoei aurrea hartzeko, behin-betiko lema eskuartean hartu eta helmugarantz norabidea zehazteko.

Hizkuntz eskakizunei aurre egiteko baliabideak jarri behar dira eta irakasle euskaldunak ezinbestekoak dira, bai hegoaldean zein iparraldean. Irakasle euskaldunen defizita estaltzeko bi irtenbide daude: edo daudenak euskaldundu horrek dakarren zailtasun, erritmo geldo eta abarren jakitun edo kontratu berriak egin. Une honetan euskalduntzea azkartu behar bada ere, irakasle euskaldun gehiago kontratatzeke premia dago.

Edonola ere giza baliabideen ondortik ekonomikoak letozke. Ezinbestekoa da irakaskuntzara diru gehiago dedikatzea.

Eta adi! euskara salbu dugula eta lasai bizi gaitzkeenaren mezuarekin ahoa bete duten horiek ez zaitzatela nahastu. EAEn DOBHrekin dauden tirabirak, Heziketa Zikloak (hizkuntz eskakizunik ez), Nafarroa hiru zonaldeetan banatua, Iparraldeko adierazpenak... Euskararen aurka betidanik aritu direnak ez daude lotan. Erne, hasiak dira nagiak ateratzen.

*Euskal  
irakaskuntzak  
irakasle  
euskaldun  
gehiago  
behar ditu.*



Azken hilabetean euskarazko heziketak makilkadak jaso ditu Euskal Herri osoan.

k r o n

## Elebitasunaren aurka bost arrazoi

Batzuk eguneroko lanean indar eta ilusioa jartzen dituzten bitartean, besteak gogo hori zapuztera dedikatzen dira. Horietako bat da Daniel Gauchon Estatu Frantseseko Hezkuntza Nazionaleko ikuskaria. Hilabetea indartsu hasi du eta nola gainera. Irakaskuntza elebidunaren aurka jotzeko bost arrazoi emanez dokumentu bat idatzi zuen. Lehenengo, irakaskuntza elebidunak komunitateko hizkuntzari ematen diola lehentasuna aipatu zuen, eta Eskola Publikoak frantses hizkuntza eta kultura zabaldu behar dituela. Bigarrenik, pedagogia arazo bezala, bi irakasle behar direla zioen. Hirugarren arrazoi bezala, gurasoek euskara ez dakitenez, elebitasuna ez dela sistema egokiena argudiatu zuen. Laugarren puntu bezala sistemaren kostua salatu zuen. Eta azkenik, Estatuaren dirupean daudela azpimarratu zuen.

Arrazoi eta adierazpen hauek ikusita, Ikas-Bi Eskola Publikoko Gurasoen Elkarteak ez da isilik gelditu, ezta gutxiagorik ere. Funtzionari izaki, ikuskari batek bere ikusmoldea publikoan agertzeko eskubiderik ez duela azpimarratu zuen lehenengo. Hori dela eta, Gauchonen kasua ikertuko du Bordeleko akademiak hartu behar diren neurriak finkatuz. Ikas-Bi elkarteak ere txostena gertutik jarraitzeko asmoa agertu du eta

baita Gobernuak irakaskuntza elebidunaren inguruan har ditzazken erabakiak jarraitzekoa ere.

### Desertoreak: ikastolako gurasoak zerrendaturik

Marcel Monlong, berriz, beste salaketa batzuekin agertu zen. Baigorriko alkatea den honek Ortzaize eta Donibane-Garaziko ikastolara joaten diren baigorritarren gurasoen izenak argitaratu zituen. Kontseju Orokorren aurrean ikastolen aurkako adierazpen gogorrak egin zituen, eta hori gutxi balitz, boletín munizipalean beraien haurrak ikastolara bidaltzen dituzten baigorritarren izen-abizenak eta helbideak argitaratu zituen.

18 ikasle dira Ortzaize eta Donibane-Garaziko ikastolara joaten direnak, eta kopuru horrekin eskola publikoan beste gela bat ireki daitekela zioen Marcel Monlongek. Ikastolak gehiegi politizatuak daudela zioen eta estremistak direla. Kulturaren izenean ezarritako ordenaren aurka joaten omen dira, eta bere ustez, hori baino maila intelektual handiago merezi omen du "gure" lurraldeak.

Ortzaize eta Donibane-Garaziko ikastoletako gurasoen erantzunak entzun behar izan ditu Monlongek horrelako adierazpenen ondoren. Beraien lana eta Monlongek aipatutakoaren artean zerkusi gutxi dagoela begi bistan jarri dute oraingoan ere.

## Hizkuntz ereduak oraindik eztabaidan

EAEko Hezkuntza Sailburua den Inaxio Oliverik egindako Bigarren Hezkuntzako irakasleen banaketa plana ez zuten onartu PSE-EEko kideek. Oinarrian zegoen ideia zera zen: gaur egun klaseak gaztelaniaz ematen ari diren irakasle euskaldunak euskarazko plazak betetzea. Sailburuaren hitzetan, 800 irakasle elebidun daude egoera honetan, eta proposatutako aldaketak datorren ikasturtean 1.000 milioi aurreztea suposatuko luke.

PSE-EE, ordea, ez zen ados agertu plan honekin. Beraien esanetan 800 irakasle horiek klaseak euskaraz ematera behartuta egongo lirateke. Jarrera hau inmobilita eta atzerakoitzat kalifikatu zuten EA eta EAJ kideek. Horrela egin ez bada urtero irakasleen euskalduntzean gastatzen diren 9.000 milioiek ez dute zentzurik.

“Ezagutza ez dago, derrigorrez, hizkuntzari lotuta”. (Nicanor URSUA).

# i k a



## Ikasbatuaz-en balorazio ezkorra

Ikasbatuaz orain dela lau urte sortu zen. Publifikatutako ikastolak batzen dituen koordinadora da eta benetako euskal eskola publikoa garatzeko asmoz sortu zen. Lau urteko bizitzaren ondoren egonezina eta kezka dira nagusi bertako partaideen artean. Administrazioako arduradunen aldetik elkarriketarako jarrerarik ez dutela agertu salatu dute, eta “Euskal eskola publiko berria” sortzeko oztopoak baino ez dituztela jarri.

Ikasbatuaz-ek hainbat arazo ikusten ditu, batez ere hizkuntzari dagokionez. Hemendik aurrera euskaraz bizitzeko gai ez diren langileak ez dituztela onartuko salatu dute: bai irakasleak, bai langile ez-dozenteak.

Egoera honi bira emateko hartuko duten neurrietako bat izango da hau, baina gehiago ere hartuko dituzte. Dena dela, sare publikoko sektore guztiei zuzentzen die deia. Helburua guztiontzako eskola konpetentetagoa, kalitate gehiagokoa, autonomoagoa eta irekiagoa eraikitzea da.



## Nafarroa: Ditxosozko erreforma. Azkar eta Presaka

Denok dakigu Nafarroan ikasturte bat lehenago ekin ziotela LOGSEko Erreforma ezartzeari. 1997-98 ikasturtean DBH osoa ezarrita egongo da, beraz. Erreforma honetan lehenengoak izaki, arazo bat baino gehiagorekin topatu dira, eta konpondu ezinak ere sortu dira. Azken tira-bira Hezkuntza Sailak aurkeztutako dekretuak sortu du. Foru Gobernuak apirilaren 21ean onartu zuen DBHren antolaketaren inguruko aipatu dekretua. Baina ez zen boletin ofizialean argitaratu oposizio indarrek ez zutelako onartu. Sindikatu eta Guraso Elkarteak ere guztiz aurka agertu ziren.

Dekretuaren arabera, bi curriculum mota jarriko lirateke: bata oinarrizkoa eta guztiei zuzendua; eta bestea, gaitasun gehiago duten ikasleei zuzendua goi-mailako ikasketak egiteko. Horrez gain, ikasle problematikoentzat aparteko gelak sortzea aurrakusten zuen dekretuak. Bi puntu hauek gogor salatu dituzte beste talde guztiek. Lehenengo neurriak zenbait ikasleri goi-mailako ikasketak egiteko atek isten dizkio. Eta bigarrenak ez du ikasleen aniztasuna errespetatzen. Neurri hauek LOGSEren izpirituaren aurka doaz bete-betean.

Gora behera guztien ondoren, ordea, dekretua onartu da. Hasieran PSN aurka agertu bazen ere, zenbait aldaketa negoziatu dituzte eta hauek onarpena eman dute. Egindako aldaketak oso azalekoak izan dira, baina hala ere, maiatzaren 19an Gobernu Kontseiluak onartu egin zuen UPN eta PSN-ren aldeko botuekin.

Euskal ereduak diskriminatzen dira, ordutegia gaztelera hutsezko irakas-kuntzan oinarritzen denez euskara gehitzeak matematika eta teknologia bezalako hautezko gaietan murrizketa suposatzen du.

Egoera honen aurrean HBk Hezkuntza Sistemaren Oinarriak arautuko dituen lege bat egitea proposatu du, heziketa printzipio batzuekiko errespetoa bermatzeko. Iuren babesa jaso du eta EA eta CDN aztertzen ari dira.



# GAIA

# Hezkuntzako beste

**G**ehienetan hezitzaile hitza entzundakoan irakaslea datorkigu burura. Zenbait irakaslek aldiz ez du bere burua hezitzailetzat jotzen, zientzia, teknika eta abarren informatzaile

eta trebatzaile hutsa dela uste du. Beste puntan, inor gutxik hezitzailetzat jotzen duen baina eskolaren eginkizunetan paper garrantzitsua jokatzeko duen langileria dago. Hauetako askok

gaztetxoaren heziketan zeresana eta zeregina badutela pentsatzen dute. Gaurko gaian azken hauek ikaslearen hezkuntza prozesu integratuan jokatzeko duten papera aztertu nahi dugu.



# hezitzaileak

## Ikasgelan hezitzen dira

Ikasgela barruan irakaslea edukien informatzaile izateaz gain transmititzailea ere bada; balore, jarrera, jokiera, gusto, sentimendu eta abarren transmititzaile da, bera horretaz guztietaz konziente ez bada ere. Uneoro, irakasten ari den heinean hezitzen ari da ere.

## Ikasgelatik kanpo hezitzen darraite

Askotan autobusean, jangelan, ikastetxean bertan antolatzen diren eskolaz kanpoko ekintzetan, eskoletako kirolean, administrazioko lanetan, garbiketan, barnetegian eta abarretan ikasgelan irakasten ez duen langileria aritzen da ikasleekin. Hauen paperak garrantzia handia hartzen du, umeak integralak direla kontuan hartzen badugu. Ikasleak eskola esparruan behintzat koherentzia ikusi behar du.

- **Autobusean.** Etxetik eskolara eta eskolatik etxera egunero errepikatzen duen ibilbidean arau, jarrera, ohitura, harreman mota, hizkuntzaren erabilpena eta abarrek badute zeresana. Autobusetik nola igo eta jaitsi, agurtzeko modua, autobusean nola joan, zein hizkuntzetan hitz egin, lagunekin nola jokatu, harremanak nola goxatu, barruan sortzen diren ohiturak (ipuinak edo txisteak kontatu, musika entzun, abestu eta abar) errespetatzen lagundu eta abar. Ikasleak arduradunen ardura sentitu behar du; hauen konfidantza, babesa eta laguntzaz jabetu beharko luke.

Honek guztiak zentzua eta koherentzia ematen lagunduko dio ikasleari. Eta zeregin horren ardura duten langi-

leen jokabidearen eta ikastetxeko hezkuntza proiektorekin arteko lotura ezinbestekoa da.

- **Jangelan.** Ikastetxe gehienetan jangela zerbitzua ematen da. Etxetik kanpo, gelakideekin edo beste batzuekin jateak badu gaztetxoarentzat zeresana. Eginbehar hau betetzeko moduak ere ondorioak ekarriko dizkio ikasleari.

Janaria nola prestatzen den eta bere kalitateak garrantzia du horrek osasunean ekar diezaiokeen ondorioengatik batez ere, baina oraingo honetan ez gara elikaduraz arituko, jarrera, portera, ohitura eta abarrez baizik. Honen guztian arduradunek jokatzeko duten papera baloratzekoa da bere neurrian.

Denbora dextente pasatzen da normalean goiz eta arratsaldeko klaseen artean eta hau langile batzuek betetzeko ardura dute. Jangelarako sarrera eta irteerak, jateko tresnen erabilpenaren trebetasuna lantzea, janaria zaintzea, zapora desberdinak ezagutzea eta horietara piskanaka ohitzen joatea, bakoitzaren erritmoa errespetatzea eta beharra dutenei laguntza ematea, jate-



ko orduan arau batzuek errespetatzea, hortzen garbiketa eta abarren heziketak garrantzia handia badu ere, ondorengo denbora nola antolatu jakiteak eta ikasleak protagonista eta gustora sentitzeko aukera eskaintzeko gai izateak garrantzia du.

Hau guztia horrela aztertuz ez da zaila izango sentsibilitatea duen edonorentzat, ikasleak uneoro hezitzen ari garela ohartzea.

- **Eskolaz kanpoko ekintzetan.** Geroz eta ikastetxe gehiago dira bertan ekintza desberdinak antolatzen dituztenak (musika, antzerkia, dantza, informatika, hizkuntzak, eskulanak...). Ekintza hauek ezin dira gaintzeko ikasgaiak bezala tratatu baina ikasleak koherentzia izan dezan arau, ohitura, errespetuzko jokaera minimoak izan behar ditu. Eta ekintza horien arduradunek ikastetxearen proiektua kontuan hartzea ezinbesteko baldintza izan beharko luke. Ekintza hauetan ere ez al ditugu gaztetxoak hezitzen?.





# Kanboko barnetegia

- **Eskoletako kirolean.** Eginkizun honetan normalean gurasoak dira ardura nagusia hartzen dutenak. Gune ezin hobe beraz etxeko eta ikastetxeko ikuspegiak batzeko. Honetan ere koherentzia eskatzen du ikasleak. Zein kontraesanetan jartzen dugu haurra batean parte hartzea, osasuna zaintzea, esfortzua egiten ohitzea, lagunak egitea, taldeko lana eta abar direla garrantzitsuenak eta bestean irabaztea nagusitzen denean ororen gainetik? Askotan zuzenean esan gabe guk horrela adierazten diogu gure jarrerekin eta horrek bere ondorio kaltegarriak ekar liezaizkioke.

Gutxiengo batzuetan behinik behin ikastetxe berean adostu beharreko puntuak dira.

- **Administrazio lanetan.** Ikasleak esparru honekin harreman gutxiago badu ere kontuan hartzeko puntua da. Oharrak nola igortzen diren, kontsultak nola erantzuten diren eta abarrek bere garrantzia du.

- **Garbiketan.** Ikastetxea garbi egoteko ardurak pertsona batzuren esku egon behar al du bakarrik? Osasuna, arauak, ohiturak, hizkuntza, estetika... denon eskubidea eta betebeharra dela pentsatzen badugu, arlo hau ere kontuan hartu eta zaindu beharko genuke. Ez al da hala?

- **Barnetegian.** Puntu hau adierazteko ikastetxe baten esperientzia ekartzea iruditu zaigu egokiena. Horretarako Iparraldean dagoen Kanbo herrira gerturatu gara eta bertakoek azkeneko 14 urtetan izan dituzten gora-beherak ezagutaraziko dizkizuegu. Aipatu urte horietan bi ikasle izan dira barnetegira moldatu ez eta utzi behar izan zutenak. Honek denok ez gaudela denetarako eginak adierazten digu eta hori ere kontuan hartu beharrekoa dela erakusten digu.

Horrela bada, sar gaitezen barnetegira eta ea honek onerako ala txarrerako zer ematen digun ezagutu dezagun.



Ani Costera, Yolanda Tapia eta Ana Mari Campane barnetegiko hezitzaileak

Iparraldeko herri desberdinetatik etorritako 60 ikasle osatzen dute Kanbo barnetegiko biztanleria. Erdiak zuberotarrak, urruntasunak baitu barnetegian egon ahal izateko lehentasuna. Dena den, kasu bereziak direla eta (familia baitan zailtasunak, jokamolde istilutsuak, harreman, ikasketa zein pertsonal mailan arazoak dituzten gazte edo nerabeak...) gertuagokoak geroz eta gehiagotan hartu behar izaten dituzte. Hala ere, dagoen arriskuaz jakitun dira eta ez lukete nahi barnetegia lan, eskolatze ala familia arazoak konpontzeko joleku bakartzat bihurtzea.

Toki berean adin ezberdinetako gaztetxo eta gazteak (11-18 urte bitartekoak) elkarbizitzea da Kanboko barnetegiko berezitasunetariko bat. Baina ez bakarria, ikasturte osoan bertan bizitzeko gune berean neska-mutilak elkartzea litzateke beste berezitasunetariko bat, eta ez txantxetako.

Ikastoletako ikasleak dira, ikasketak euskaraz egiten ari direnak, Kanboko kolegio eta Baionako lizeoko partaideak guztiak.

## Denboraren antolaketa

6.45etan.- Lizeoko ikasleak iratzartzen dira.

7.00etan.- Beste ikasleak iratzartzen

dira.

- Gosari ugari eta orekatua.

8.10ean.- Taldeka sukaldea jaso eta garbitzen da.

- Gelak txukuntzen dira.

8.30etan.- Ea dena egoki jasota eta txukunduta dagoen ikusten da.

- Barnetegiko ateak ixten dira.

\* Ikastegiko Hezkuntza Aholkulariarekin gaueko gora-beherak hitz egiten dira.

16.35ean.\* Hezkuntza Aholkulariak barnetegiko hezitzaileei eguneko berriak ematen dizkie. Era honetan, barnetegiko ikasleen gora-beherak ezagutzen dituzte.

- Klaseak bukatzen dira.

- Askaria, atsedena eta kanpoezkoak (musika, dantza, antzerkia...).

17.15etan.- Ikasketa. Egunero ordu bat gutxienez.

- 11-12 urtekoak hezitzaile batekin aritzen dira.

- 13-14 urtekoak hezitzaile batekin aritzen dira.

- 15-16 urtekoak talde auto-disziplinan aritzen dira.

- 17-18koek beraiek antolatzen dute beren denbora afaltzeko ordurarte.

\* Lehenengo 2-3 urtetan hezitzailearen papera oso garrantzitsua da ikasketa ohitura sor dadin.



19.00etan.- Afaria.

20.00etan.- Hautatzen dituzten edo proposatzen zaizkien jarduerak: mahai jokoak, pilota eta abar...

- Egitaraua aztertu ondoren, telebistako emankizun bat proposatzen zaie hamabostero. Ikasleak adinaren arabera bi taldeetan banatzen dira. Helduek telebistako berriak ikusteko aukera dute eta honez gain ez da telebista programarik ikusten.

21.00etan.- Gazteenen dutxa eta garbiketa. Segidan beren geletan sartzen dira.

21.30etan.- Gaztetxoan oheratzea.

22.00etan.- Lanik ez duten lizeoko ikasleak oheratzen dira. Lanak logeletan jarraitzeko hautua eskaintzen zaie.

23.00etan.- Argiak itzaltzen dira.

\* Hezitzaileak sekulan ez dira oheratzen logela guztietan isiltasuna egon arte.


## Logelak

Logelako 3-4 ikasle egoten dira. Adina eta sexua kontuan hartuz ikasleek norekin egon hautatzen dute. Hau da, nesken taldeak eta mutilen taldeak osatzen dituztenean talde bakoitzak zein logela nahi duen aukeratzen du. Mutiko eta neskato taldeen artean ez da bereizketa fisikorik. Puntu hau eztabaidatua izan da maiz gurasoekin, zein pedagogia taldearekin. Eta ondorioa, egoera honek neska-mutikoen arteko harremana errazten duela litzateke, giro goxo eta erakargarria sortzen duela, nahiz eta egoeraren kudeantza lan berezia eskatu.

Gazte bakoitza bere logelaren arduraduna da (garbiketa, apainketa, gelako materialaren zainketa...). Gazteak ahalik eta gustuen sentitu behar du bere gelan. Espazio hori norberarena egitea eta tokia eskuratzea barnetegiko biziaren adierazgarria da. Barnetegian ongi sentituko den heinean, halatsu bereganatuko du eskolatze prozesua.

## Aisialdirako gunea

Denek erabil dezaketen gunea bat dute. Bera jokogune, eskulanak egiteko toki, irakurketa edo ikasketa gela



edo mintzaleku izan daiteke. Ederra da adin ezberdinetakoak eginkizun berean aritzen direla ikustea.

## Jangelak

Sukaldari batek prestatzen ditu janariak eta hiru gela ezberdinetan zerbitzen dira. Ikasleak nahi duten gelan kokatzen dira.

Egurdian Herriko-Etxeak (Udaletxeak) herriko ikasle guztientzako bazkaria banatzen du kantuan. Han zer jaten den eta ikasleek zer jan nahiko luketen kontuan hartzen da afaria prestatzeko orduan. Garrantzi handia ematen zaie afari, gosari eta askari garaiei, bai elikaduraren kalitateari dagokionean, bai une horietan egiten diren harreman pertsonalei dagokionean. Kaintetako bano giro lasaigo eta egokiagoa sortzen saiatzen dira.

Ikasleei lan batzutan taldeka parte

har dezaten eskatzen zaie (gosariko baxerak jasotzea, gelen garbiketa, bazkariko baxera asteazken gauetan...). Autonomia izatea eguneroko lanak egiten ikastea eta taldean uneoro nola jokatu jakitea izango litzateke hezitzaileen ustean. Eta hau, hezitzaileen ahotan, ez da bapatean lortzen; eguneroko jardunean, ohiturak sortzen eta hausnarketaren ondoren irabazten den zerbait bezala ulertzen dute.

## Jarduerak

### A) Arratsean

Urtean zehar arrats guztietan eskulan zikloak proposatzen dizkiegu. Gidaturiko jarduera hauek behar-beharrezkoak dira ikaslea taldean barneratzeke, batez ere 11 eta 12 urtekoentzat. Jarduera hauen inguruan sortzen dira ikasleen arteko lehen



harreman eta loturak, eta baita ere, ikasle-hezitzaile artekoak. Arrats horietan sortzen den giroari esker lasaiago azter daiteke familiarekiko urrun egotea alde batetik, eta bestetik, talde bizitzaren ikasketa.

Honi doakionez, ikasleek anitz eskatzen dute. Teknika batzu ikasteko edo menderatzeko (pirograbazioa, moldaketa, argazkia, maskara atelierra, larrua lantzea, lonograbazioa eta abar...) sustapena da jarduera, eta denbora berean heziketa lanerako zutabea: ikasle batzuekiko balorazioa, norberaren baitan konfidantza ukaitea, hasitako lana bururaino eramaten ikastea, lan jakin batean kontzentratzea, norberaren gaitasunak atxematea, porrota zer den ikastea... besteen ikuspegia onartzea eta abar...

Jarduera zikloak ikasle guztiei idekiak dira eta azpimarratu behar dugu lizeoek ere parte hartzen dutela proposatzen zaien eskaintzen arabera.

Eserientziak erakusten digu badela zailtasun bat 13 eta 14 urteko ikasleak sustatzeko, adin honetan helduekilako eta haur munduarekilako hausturaren beharra baitute. Molde ezberdinetan adierazten da:

- Helduek eskaintzen dioten orenen gaitzespena
- Haien artean egoteko beharra
- Arazoak eta abar...

Adierazpen molde guztiak kontuan hartuz, neraberako une zail hau gainditzen laguntzea da gure lana.

Lizeoko ikasleekin, beren aldetik parte hartze handiagoo erdiesteko xedearekin, beste hainbat egitasmo betetzen ditugu (adibidez, tixortak egitea eta saltzea) urte bukaerako ateraldien finantzatzeko.

Eskolaz kanpoko ekimenak ere proposatzen zaizkie, ikastetxe barnean edo 15 urtetik aurrera ere kanpoan, kanpoko laguntzaileen partehartzearekin (musika kurtsoak, dantza, antzerkia...).

### B) Asteazkena

Asteazken arratsaldean klaserik ez dutenez denbora luzea eta garrantzitsua da aste osoan barnetegian den gaztearendako. Ikasle kopuru erdia, 30 inguru, bere etxera doa barnetegian geratzeko gogoz badaude ere. Urruti xamar bizi direla eta barnetegian gertzen diren gatzetxoei, gutxi gorabehera 3 astetarik behin, ateraldi bat proposatzen diegu (lerratokira, igeritokira, zinemara, hirira...).

Asteazken arratsaldetako jarraipena gaueko izpiritu berean egiten dugu.

14 urteko ikasleek hamabostero aterako hautua dute, gurasoen baimenarekin, eta ardura beregain hartuz, emeki-emeki denbora librea erabiltzen ikasteko helburuarekin.

## Ikasketak eta eskolarako laguntza

Hezitzaile bakoitzak talde zehatz bat du ikasturte osorako. Honek haurraren jarraipen pertsonala bermatzen du eskola mailan: eskolarako lana eta lotura haurraren tutore edota erakasleekin. Ikasleak hiru taldetan banatzen dira:

1) **11 eta 12 urtekoek** jarraipen hurbilagoa dute. Hezitzaileak ikerketa bideratu bat hartzen du beregain: lana ontsa eginaz denez begiratzen du, ikasgaiak barnatu dituztela. Anitzetan ikasketak pentsaturiko ordutegitik at luzatzen dira (teorikoki oren bat).

2) **13 eta 14 urteko ikasleekin**, jarraipena zehatza ez bada ere, hezitzailea hor da lanerako kontzentrazioan laguntzeko eta zailtasunak direlarik, beren sostengua ekartzeko. Jarraipen berezi bat beharrezkoa izan daiteke zenbait kasutan.

3) **Lizeoak**: ez da jarraipen zehatzik aintzinikusi. Lana autodisziplinan egiten da. Hala ere, denbora horretan ikus dezakegu gaztea bere lanaren egiten: lanari eskaintzen dion denbora, hartzen duen metodoa (bakarka edo taldean). Zenbaitetan laguntza eskatzen digute lan baten egiteko (hau dela eta, gazteak atxeman ditzakeen zailtasunetaz ohar gaitzeko).

## Hezitzaile eginkizun ezberdinak


### A) Hezitzaile taldearen lana

Kontzentrazio lan bat egiten dugu asteen behin. Horrez gain, behar-beharrezkoak diren harreman informalekin bidez osatzen dugu lan hau.

Talde lanari esker ekimenen plan-gintza egin dezakegu, kasuz-kasu hezkuntza ardurak hartzea, ebaluatzea, eta behar delarik, berregokitzea.

Erregulariki, hartu ahal izan ditugun oharrek trukatzeko ditugu elkarren artean, gazteari buruzko ikuspeirik objektiboena ukaiteko.

Talde edo ikasle bati buruzko gertakarien berri ematen diogu elkarri ahal bezain laister: honela gure erantzuna





"beroan" azter dezakegu eta horrez gain, batzuen eta besteen jarrera koordinatu, gazteek etengabe eta zehazki egiaztatzen baitute guk ezartzen dizkiegun mugak guztiek onartzen ditugun ala ez.

Nerabearen arazoak larriagoak baldin badira, zenbaitetan norabide taldeari edo kanpoko jendei eskatzen diegu laguntza (adibidez psikologoa, gizarte-laguntzailea eta abar).

## B) Erakaskuntza eta Orientazio taldeekilako harremanak

Ikasle bakoitzaren zailtasunen berri ematen diogu erakasle taldeari (adibidez, ikasleak ulertu ez duena), azken honek kontuan har ahal ditzan eskola mailan. Gisa berean, erakasle taldeak ere ikaslearen berri ematen digu, adibidez ikasleak egin ez duen lan bat.

Astero astero bilkura bat badugu Hezkuntza Kontseilariarekin, hezkuntza eta eskolaratze ekimenak uztarturik egon daitezten. Lotura egiteko egutegi bat betetzen dugu, egunero informazioa pasatzen ahal baita eguneroko bizia eta barnetegiko biziaren artean.


Klaseko kontseilu bakoitza egin aintzin bilduma pertsonalizatua ematen diogu Hezkuntza Aholkulariari, eta honek klaseko kontseiluari ematen dio. Honi esker, erakasleak hiru oinarri ditu gaztea barnetegian kokatzera: nerabea/gaineratekoen arteko harremanak; jokabidea eta kurtsoz kanpoko eskola lana.

Erregulariki gazteekin egindako lanaren berri ematen diogu orientazio taldeari. Gure heziketa lanaren berri eta honen ebaluazioa ematen diogu.

Egoera larri bat gertatzen delarik ere elkarrekin aritzen gara. Trukaketa honek gertatutako egoerakilako jarrera egokiago bat hartzen laguntzen gaitu.

## C) Gurasoekiko harremanak

Urtean zehar bederen bi bilkura programaturik dira gurasoekin. Barnetegiaren aurkezpen bilkura eta egitasmoa, barne araudia eta egitura honen barnean dugun eguneroko bizia sakon-



tzen dira.

Barnetegiko pedagogi egitasmoa aintzina joan da gurasoen ekarpenekin, haien ideiekin, hiru atal hauek dituzten beharrek: egitura, gurasoak eta gazteak.

Urtean zehar gurasoekilako lotura sendoa dugu. Berehala ohartarazten ditugu osasun, jokamolde eta ikasketa mailako arazoren bat gertatzen delarik. Gurasoek beren aldetik, gehienbat inplikatzeko dira haurren jarraipena egiterakoan.

Ikasle berrien gurasoekin lan berezia egin behar dugu, azken hauendako urrun egoteak aise uler daitekeen larrialdia sortzen baitu (gazteen adina ikusirik).


Gure eginkizuna, puntu honi doakionez, haurrak barnetegian daraman biziari buruzko ahal bezainbat xehetasun ematea da, eta aldi berean, gurasoak lasaitzea.

## Bilduma

Egitasmo hau parte batez zehazten duen hezkuntza akzioa ezinbestekoa iduritzen zaigu osatzen ari diren nerabeak ulertu, lagundu eta bideratzeko.

Guri sortzen zaizkigun zailtasunak, inguruari sortzen zaizkion berak dira: itsuarena egitea edo ezjakinarena egitea ardua falta litzateke.

Elementu hauek kontuan hartuz, barnetegiko pedagogi egitasmoak bere zentzu osoa atxikitzen du.



# **e**l karrizketa

## BERTSOLARITZAZ

“

*Gure helburua bertsolaritza irakaskuntza mailan tresna pedagogiko bezala erabiltzea izan da*

”



Jon LOPATEGI



Mikel MENDIZABAL



**S**an Pedro egunean Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari txapelketa ospatuko da Mungian. Ohiko bertso txapelketetan bezalaxe bakarka, gaia jarrita, oinak emanda edota puntuka euren abilezia erakutsi beharko dute haurrek. Baina horretarako aurretik lan eginda eta prestatuta doaz. Ikastetxe zein bertso eskoletan urte osoan zehar bertsolaritzaren munduan murgilduta ibiltzen dira. Baina ez haurrak bakarrik, irakasleok ere bai. Irakasleon lana beharrezkoa da haurrek bertsoan ikas dezaten, bertsoarako afizioa sor dakieken eta bertsolaritzaren historia ezagut dezaten. Horretarako sortu zen "Bertsolaritza Irakaskuntzan" proiektua 1982an. 15 urte geroago, plangintza horren ibilbidea, gora-beherak eta emaitzak ezagutu asmoz jo dugu Mikel Mendizabal eta Jon Lopategirengana, Gipuzkoa eta Bizkaiko Ikastolen Elkarteko bertsolaritza arduradunengana.

**"Bertsolaritza Irakaskuntzan" plangintza aipatu dugu, eta has-teko, azaldu iezaiguzue nolatan sortu zen eta zein asmorekin.**

**Mikel Mendizabal.**- Beno, hasiera kuriosoak izan zen. Eskoriatzako Almen ikastolan esperientzia bat egiten ari ziren Xanti Iparragirre, Patxi Goikolea eta Juanito Akizu. Neska-mutil koadrila bat hartu eta bertso zaharrak kantatzen zituzten astero-astero elkartuz. Talde hartan zeuden Sarasuatarrak, Iñutarregi anaiak, Arantzazu Loidi, Isazelaia... Horrela, Ikastolen Elkartera etorri ziren egiten ari ziren esperientziaren berri emanez eta eskolan sartu zitekeela esanez.

Orduan Ikastolen Elkartetik Gipuzkoako Diputaziora jo zen. Garai hartan Imanol Murua zegoen diputatu, bertsozalea bera. Jarraian Amuriza, Lazkano eta beste bertsolari batzuekin hitz egin zen nola enfokatu zitekeen aztertzeko.

Bertsolaritza eskolara sartzea zen ideia, eta lan hori koordinatzeko pertsona bat behar zenez, neu jarri nintzen.

**Jon Lopategi.**- Hasierako pausoak Gipuzkoan eman ziren, eta Araba eta Bizkaian handik bizpahiru urtetara

***"Bertsolaritza irakasteko ez da bertsolari izan behar, nahikoa da dedikazio bat eta gusturaz aritzea"***



hasi ginen Abel Enbeita eta neu. Nafarroan Lontxo Aburuza hasi zen, eta Iparraldean artean ez zen oso garbi ikusten, eta horretan gelditu zen.

**Zein helbururekin ekin zenio-ten plangintza honi?**

**Mikel.**- Gure helburua bertsolaritza irakaskuntza mailan tresna pedagogiko bezala erabiltzea zen. Hizkuntzaren inguruan, eta batez ere aho-hizkuntzaren inguruan, tresna oso egokia zela ikusten genuen.

**Jon.**- Garrantzitsua da azpimarratzea plangintza ez dela ikastoletara mugatzen, proiektu zabala da: ikastola, ikastetxe publiko eta pribatu... Dereduaren inguruko eskola guztientzat zabalik dago. Materiala ere guztientzat dago eta txapelketak ere bai. Ni neu Ikastolen Elkartetik kontratatu ondoren hasi nintzen, baina hasieratik eskola publikoetara ere joatea eskatu nuen, eta onartu zidaten.

**Beraz, bertsolaritza eskoletan txertatzeko lanean hasi zineten. Zeintzuk izan ziren horretarako eman zenituzten lehen pausoak?**

**Mikel.**- Lehenengo pausoa irakaslea prestatzea zen. Horretarako ikastaroak eta mintegiak antolatu ziren. Eskola

# BERTSO- LARITZAZ



“**Aho-  
hizkuntzaren  
eta hizkun-  
tzaren osa-  
garri garran-  
tzitsua da,  
Euskal  
Herriko altxor  
bat, ezagutu  
beharrekoa  
eta irakas-  
kuntzan bere  
lekua izan  
behar  
duena**”

bakoitzetik irakasle batzuk etortzen ziren bertso-laritzea eskola ordutan nola txertatu ikasteko.

Hurrengo urratsa ikasmateriala osatzea zen. Ez zegoen ezer eta irakasleei zerbait eman behar zitzaien. Horrela Juanito Dorronsororen “Bertsotan” eta Amurizaren “Zu ere bertsolari” liburuak erabiltzen hasi ginen. Horrekin batera, Ikastolen Elkartearen mailaz-mailako materiala sortzen hasi ginen: bertso trenak, bertso galaxia, bertso ostaturak...

**Jon.**- Hau dena mugitzeko eta motibatuzeko ekintza desberdinak egiten hasi ginen: kanpoko bertsolari ezagunak ekartzen genituen gelara, eskolako ekintza eta jaietan bertso saioak antolatuta ere bai. Eta ekintza indartsuena edo, Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.

Hala ere, aktibitate hauek eskola barrukoak dira. Kanpoko esparruan bertso eskolak sortu dira. Afizio edo gaitasun gehiago erakusten zuten ikasleekin talde txikiak egin genituen.

Biak dira osagarri; bai eskolakoak, bai eskolaz kanpokoak. Ikastetxean lantzen bada, gero eskolaz kanpo lantzeko taldeak erraz sortzen dira.

**Eskola barruko ekintzak aurrera eramateko irakasle on inplikazioa beharrezkoa da. Dena dela, irakasleok beti halako beldurra agertu dugu gai honi eltzzerakotan, bertsolari ez garela argudiatuz. Nola borrokatu duzue ideia honen aurka?**

**Mikel.**- Bai, egia da bertsolari hitza aipatu orduko izen horrek berak atzerakada handia ematen duela. Hor asko borrokatu behar izan genuen. Helburua ez zela haurrak bertsolari bihurtzea azpimarratzen genuen, ez zegoela asmatu, egin eta inprobisatu beharrik, beste era bateko lana zela, beste jolas bat. Lehenengo eta behin, hori sartu behar zitzaien buruan irakasleei.

Beti azpimarratzen genuen ariketa eta jolas horiek egiteko ez zela bertsolari izan behar. Nahikoa zela dedikazio bat, gustora hartzea, aditua izatea. Eta

hori edozein irakasle gaitzetzeko modukoa da.

Irakaskuntza mundua zera azpimarratu nahi genuke: bertso-laritzea eta eskola ez direla bertsolari fabrika bat bezala erabili nahi. Ez da hori. Hizkuntzaren eta aho-hizkuntzaren tresna baliagarri bat baizik. Irakasleek ez daukate zertan adituak izanik, gusto hartzea nahikoa da.

**Lehenengo pausoa planteamendua aldatzea da, beraz. Baina ondoren, bertso-laritzea klase barruan nola landu ere ikasi behar da.**

**Mikel.**- Bai, hala da. Guk euskararen inguruan mugitzen ziren irakasleek, beren gaitan pixkanaka-pixkanaka bertso-laritzea sartzen joatea planteatzen genuen. Astero horretarako ordu erdia edo ordubete hartzea planteatzen genuen. Materialak ere argitaratu genituen laguntza moduan.

Hala ere, irakasle guztiek denbora hori ez ziela eskaintzen konturatu ginen. Horrela, erreformarekin batera, beste planteamendu bat egiten hasi eta zera erabaki genuen: aparteko materiala ateratzea beharrezkoa, ikasmaterialen barruan txertatzea bertso-laritzea edukitako. Hor asmatu dugula uste dut. Testu liburuan bertan aurkitzen dute materiala, eta ez dute beste liburu baten bila joan beharrik.

**Bizkaian, ordea, planteamendu honek ez zuen hain ondo funtzionatu.**

**Jon.**- Hala da, bai. Irakasle gehienek beldur hori ez zutela galdu konturatu nintzen. Gauza misterioitsu eta zail bezala ikusten zuten eta ez ziren neuk nahi nuen askatasunarekin mugitzen. Horregatik, neu hasi nintzen zuzenean haurrekin. Ondorio hobek izan ditu, nire ustez. Zuzenki neu joanda erraz sailkatzen nituen taldeak eta baita zeintzuk ziren zaletasun handiagok ekintzetan gehiago sartzen zirenak ere. Bide horretatik jarraitu dut urte guzti hauetan.

**Orduan, zeu zuzenean aritzen bazara hurrekin, zein da irakasleon eginkizuna?**

**Jon.-** Astean behin joaten naiz ikastetxe bakoitzera, 5. edo 6. mailako gelalara. Nirekin batera ikastetxeko bertsolari arduraduna egoten da. Hau da, eskola bakoitzak bertsolaritzaren ardura eramateko irakasle bat izendatzen du. Euskara ematen dute irakasle guztiek izaten dute ezagutza orokorra, material berriak eta abar, baina espezialitate bezala edo zuzenki, neuk eta bertako arduradunak irakasten dugu.

Arduraduna nirekin batera egoten da klasean. Bertsolaritza jolas bezala eman behar izaten da, baina disziplina jartzea ere beharrezkoa da. Ni astean behin joaten naizenez, badakite ez ditudala zigortuko. Eta bertako irakasleek, berriz, badakite nola mantendu formalidadea eta nola lan egin arazi.

**Arduradun horrek lagundu egiten dizu, beraz. Bera da, zurekin batera bertsolaritza espezialitatearen erakusle. Beraz, prestaketa bat ere jaso beharko du.**

**Jon.-** Bai, iraila aldean ikastaro bat ematen diet: zer eta nola eman daiteken. Nik prestatuta daukadan materialaren berri ere ematen diet. Haurrak balira bezala, ariketa guztiak egiten ditugu, eta horrela badakite zer emango diedan hurrei eta eurak ere zer eman dezaket.

**Dena dela, irakasleak zuzenean aritu ez arren, eskolako programaketan guztiek kontuan hartu behar dute bertsolaritza. Eta alde horretatik, euskal curriculumean sartzeak garrantzi handia du.**

**Mikel.-** Bai, noski. Bertsolaritza eta ahozkotatasuna gure altxorak dira, bereizi izan gaituzten ezaugarriak dira. Euskarak izugarritzko gaitasuna du ahozkotatasunean.

Horregatik, ikasle guztiek gutxiengo bat jaso behar dute. Ikasle guztiak jakin behar dute zer den koplak bat, zortzikok bat, silabak neurtu egiten direla, zer den errimatzea, belarriaren

sonorizazioa zer den, ahozko elementuak (hitz-korapiloak, hitz-jokuak, asmakizunak...), Bilintx, Xenpelar edo Txirrita non jaio ziren eta haien bertsoren bat, guk Lope de Vega, Calderón de la Barca eta Quevedo ikasten genituen bezala.

Horrez gain, eskolaz kanpokoa dator; bertso eskoletako jende aukeratua eta talde mugatua arlo hau gehiago lantzeko. Baina eskolaz barrukoa da garrantzi berezia daukana. Lehen pauso hori gabe ez dago gerokorik.

**Ahozkotatasuna lantzeko bide aproposa da bertsolaritza, dudarik gabe. Eta hori gutxi landu izanda, beharbada, klase barruan.**

**Mikel.-** Bai, gabezia hori ikusten genuen. Eskolan ariketa gehienak idatzirako planteatuta daude. Beti pentsatu izan dugu aho espresioa gehiago landu behar dela eta gai hau bereziki horri lotua dago. Gaurko hurrei garbi ikusten zaie erantzun motzak ematen dituztela eta elkarrizketa berehala bukatzen dutela. Hau da, hizketan jarraitzeko zailtasunak dituzte, hitz jariotasuna moteldu egin da, bizitasuna eta grazia galdu dira.

**Aho-hizkuntza hau berreskuratzeko garaian irakasleak jokatzen duen paperak zenbateko garrantzia dauka?**

**Jon.-** Irakaslearen garrantzia izugarritzkoa da, irakaslea oinarrizkoa da. Bere jarreraren arabera diferentzia izugarriak sor daitezke. Aho-hizkuntzaren gai honetan beti azpimarratu dugu hurrek ondo pasa behar dutela. Ahozko jolasak egin behar dira eta oso garrantzitsua da gelan giro hori sortzea, hurrei sormen lana jartzea, oso motibatuta sentitzen direlako zerbait asmatzen dutenean. Horregatik da hain garrantzitsua irakaslea.

**Ahozkotatasuna aipatzen ari gara, baina bertsoak bapatekoak izateaz gain, idatzizkoak ere izan daitezke. Zeinek du garrantzi gehiago?**



**Mikel.-** Biek dute garrantzia. Txapelketetan ere beti bi arloak jorratzen dira. Bertsoçpaperetan urtero ia 2.000 ikasle izaten dira, eta kopuru hori mugi araztea garrantzitsua iruditzen zaigu. Bertsoçpaperen bidez zera erakuts daiteke: bertsolaritza ahozko bapatekotatasuna soilik ez dela. Amurizak ere aspaldi esan zuen bertsolaritzan bi adar nagusi daudela: ahozkoa eta paperezkoa.

Paperezkoak hurrei gehiago pentsatzeko, hitz joku gehiago egiteko... aukera ematen die. Bapatekora bakarrik mugatuko bagenu, oso jende gutxi parte hartuko luke.

**Jon.-** Dena dela, gela barruan ahozkoari garrantzi gehiago ematen zaio ahozko espresioa indartu nahi delako. Hala ere, horretarako idatzizko ariketa eta teknikak ere erabiltzen dira: hutsu-neak nola bete, errima eta abar. Beraz, lehenengo pausoa idatzian ematen da, eta gero etorriko da buruz egitea. Idatzia beharrezkoa da hasierako pausoak emateko.

**Baina, adin txikitik, 2 eta 5 urte bitartean, idatzen ez dakitenean...**

**Mikel.-** Adin horretan, batez ere kantatzearekin eta doinuarekin egiten



# BERTSO- LARITZAZ

e

“*Irakas-  
kuntza mun-  
duan zera  
azpimarratu  
nahi genuke:  
bertsolaritza  
ez dela  
bertsolari  
fabrika bezala  
erabili nahi,  
aho-hizkun-  
tzaren tresna  
baliagarri  
bezala,  
baizik*”

dira jokuak. Manuel Lekuona, Azkue eta abarrek bildutako herri kantak, jolasak lantzen dira, hauek ere ikas ditzaten.

**Txiki-txikitatik kantu mundu hori ezagutzen da, eta hurrengo kurtsoetan bertsolaritzako arlo desberdinak lantzen dira. Baina, arazoa ondoren dator, DOBHn. Ordutegi mugatua dela eta, bertsolaritzak ordurarte izandako lekua galtzen du.**

**Jon.-** Beno, guk orain arte 14 urte arte planteatu dugu “Bertsolaritza Irakaskuntzan” plangintza hau. Hala ere, institutu mailarako liburu bat prestatu genuen: “Txikitik handira”. Bertsolaritzaren sintesi bat egin genuen bertan eta bertsolaritzaren arlo guztiak ukitzen ditu: historia, etapa nagusiak, teknikari buruzko kontzeptuak, mota guztietako bertso eta ariketak eta abar. Institutuetako ikasleentzat pentsatuta egin genuen liburu hau.

**Mikel.-** Irakasleek ere Literatura eta Historiarekin lotu ote zitekeen planteatu ziguten. Baina hori pixkat irakasle bakoitzaren baitan uzten dugu. Noski, gaia landu nahi dutenak materiala hor dauka. Institutu batzuetan bertsolaritzari buruzko lanak ere egiten dituzte eta gauzak galdetzeraz etorri izan zaizkigu.

**Jon.-** Dena dela, kontuan hartu behar da adin eta maila horretan ikasleek burua beste gauza batzutan dautkatela. Batzuk jarraitzen dute eta horiek oso konbentziturak, gainera. Jarraitzen dutenak onak dira, baina gehienek, 15-16 urtekin utzi egiten dute.

**Jarraitzen duten horiek eskola orduz kanpo egiten dute, eta horretarako sortu ziren bertso eskolak.**

**Jon.-** Bai, batzuk eskolako adinean, eskola orduz kanpo bertso eskoletara joaten dira, eta beste batzuk, eskola bukatu ondoren ere jarraitzen dute. Talde hauek txikiak izaten dira, aukeratuak, zaletasun eta trebezia dutenak. Eskolako ordutan talde osoari ematen

diot ezagutza, eta hemendik aukeratu-takoekin, bertso eskolan bapateko bertsogintza lantzen dut gehiago. Bizkaian gutxi gora-behera zortzi bertso eskolatan ibiltzen naiz ni, nahiz eta osotara 25 inguru egon.

**Mikel.-** Bertso eskolen arteko elkartrukeak ere egiten ditugu. Momentu honetan Gipuzkoan 26 herritan daude bertso eskolak. Bertsozale Elkartearekin batera plan bat egiten ari gara bertso eskolen dinamika eta zirkuitua nola mugiarazi aztertuz. Bertso eskolak kaleratzea nahi dugu, batez ere; plazaratu, ez daitezela gela barruan eta astean behingo saiora mugatu.

Dinamika horren barruan, bertso eskolen arteko trukaketa saioak aipa daitezke. Azken bi urteotan muntaia handi eta orijinalak egin dira.

**Bertso eskolen arteko trukaketak aipatu dituzue, baina ikastetxeen artean ere egin izan dira horrelako ekintzak kanpora begira.**

**Jon.-** Bai, eskolarteko trukaketak egin izan dira, eta ikastetxeko zein herriko jaialdietarako bertso saioak antolatu ere bai. Horrelaxe hasi nintzen neu eskolatan bertsolaritza irakasten. Getxon Ibilaldia egitekoa zenean, Ikastolen Federazioko arduradun batek zera esan zidan: ea haur batzuk prestatuko nituen Ibilaldiaren egunean txapelketa bat egiteko. Horrek akuilu bat sortu zidan eta orduan konaturatu nintzen Bizkaian ez zegoela bertsoan aritzeko haurrik.

Nonbait zerbait bilatzen hasi nintzen, eta 10 urteko nire semea ere jarri nuen martxan. Kurtsoan zehar bertsoak buruz ikasten egon ginen eta bapatean saiotxo bat egiteko taldea osatuz joan nintzen. Azkenean saio polita ateraz zen.

**Antzerkigintzan ere landu edo erabil daiteke bertsoa. Arlo honetan lanik egin al da?**

**Mikel.-** Egia esan, eskolatan gutxi landu da, eta beharbada gehiago landu behar litzateke. Horrek bertsoan egindako gidoi bat eskatzen du, eta



badaude oso egokiak diren doinuak horretarako. Modu horretan Hernani, Orio eta Zarauzko bertso eskolan muntaia bat prestatu dute. Eskolako egun bat plazaratzen dute bertsoan: zein klase izaten dituzten, irakasle ezberdinak, jola-garaia... Dagoeneko emanaldi batzuk egin dituzte institutuetan.

**Gelatik kanpo burutzen den ekintza handi eta ezaguna Eskolarteko Txapelketa da. 1981az geroztik urtero-urtero egin dena eta partaidetza etengabe igoz joan da, gainera. Zenbat hurrek hartu dute parte azken urtetan?**

**Jon.-** Beno, lehenengo probintziak eta eskualdeka antolatzen da txapelketa, eta gero azkenean Euskal Herri mailakoa. Bizkaian, adibidez, neuk esaten diet ikastetxeko arduradunei onenak aukeratu eta horiek ekartzeko txapelketara. Horrela, eskualde bakoitzean 100 inguru izaten dira bertso-paperetan. Bapatekoetan, aurten txikiak gehiago dira, baina normalean 50 inguru izaten dira. Normalean ne nabilen eskolakoak izaten dira, baina aparteko bakarren batzuk ere parte hartzen dute.

**Mikel.-** Gipuzkoari dagokionez, bertso-paperetan 3. mailatik 18 urtera bitartean 2.000 inguru izaten dira. Bapatean, berriz, 80 izan ohi dira gutxi gora-behera.

**Neska-mutil proportzioari dagokionez, zer esan daiteke, ohiko plazetan bezala, mutilak gehiago direla?**

**Mikel.-** Ez. Bertso-paperetan neskak askoz gehiago izan ohi dira, eta idazkera eta ideien aldetik ere txukunagoak. Bapatean, berriz, 14 urterarte, neskak erraz animatzen dira, baina 15-18 urte bitartean, askoz gutxiagok jarraitzen dute. Hala ere, segitzen dutenak konbentzimendu handiarekin eta oso ondo ibiltzen dira. Ondo betetzen dute beren lekua, eta helduen artean ere bai. Ez dago erruki punturik, gizonaek bezain onak dira.

**Ohiko plazak aipatzen hasita, esan al daiteke Eskolarteko Txapelketa hauek etorkizuneko bertsolarien harrobiak direnik?**

**Mikel.-** Bai, dudarik gabe. Gaur egun elitean dabilen jendea hauetatik pasatakoa da: Euzkitze, Sarasua, Sorozabal, Maialen, Iturriaga, Elorza eta abar. 1990tik honako belaunaldia Eskolarteko Txapelketetatik pasatakoa da, harrobiko lanaren erakusleihoa izan da.

**Aurtengo probintzia mailako txapelketak burutu dira, eta orain Euskal Herriko Eskolarteko IX. Bertsolari Txapelketaren Finala falta da. Ekainaren 29an ospatuko da Mungian. Eta hemen-dik aurrera, urtero herri honetan eta data berean, orain arte ez bezala. Zer dela eta aldaketa hau?**

**Mikel.-** Txapelketa honen helburua Euskal Herri mailako ordezkartza bil-tzea da, Euskal Herriaren irudi bat eskaintzea. Baina urtero lekuz aldatzen zenez, nortasunik gabe gelditu zaigu. Eskola ordutan izanik gainera, kanpora begira oihartzun handirik gabekoa izan da.

***“Irakaskuntza da bertsolari, bertso entzule, aditu, gaijartzaile, epaimahaikide, kritiko, kazetari eta gainontzekoen iturburua”***



Horregatik, nortasun bat eman nahi diogu eta plazara begira atera, tradizio bat sortu nahi da. Beraz, hemendik aurrera, Mungian ospatuko da San Pedro jaietan.

**Urteko lanaren bukaera izango da Mungiako finala. Baina elkar-riketa honen bukaerara iritsi aurretik, hizpide izan dugun “Bertsolaritza Irakaskuntzan” plan-gintzara bueltatuz, aipatu dizkiguzuen urte hauetako asmo, ekintza eta lanen inguruan zein balorazio egiten duzuen jakitea gustatuko litzazuke.**

**Jon.-** Nire zuzeneko esperientzian oinarrituta, oso esperientzia emankorra izan da. Oso gustora ibili naiz eta hurrek bertso mundua ezagutzeaz gain, bertsolari onak sortu dira.

**Mikel.-** Gipuzkoan aurrera eraman dugun plagintzan irakaslea izan da oinarritzko bitartekoa. Berak izan behar du gai hau bere programan sartu eta gelan bere hurrekin pixkanaka aurrera eraman behar duena. Gero, ikasmaterial aldetik laguntza badauka, baina batez ere gai hau bere programaren barruan sartu behar duela onartu behar du. Aho-hizkuntzaren eta hizkuntzaren osagarri garrantzitsua da, Euskal Herriko altxor bat, ezagutu beharrekoa eta irakaskuntzan bere lekua izan behar duena.



keztuko du; haurrek erabil ahal izateko eta beraien errekurtsioak gehiago landu ahal izateko.

**Bertsolaritzak jarripena izango du, beraz, horrelako lanak aurrera eramanda.**

**Jon.-** Bai, eta gainera orain arteko plangintza hau Ikastolen Elkarteak eraman badu ere aurrera, Bertsozale Elkartearekin ere lanean hasiak gara Mikelek aipatu berri duen bezala, eta unibertsitatean ere mugitzen hasiak dira. Bertsolaritzaren transmisioa ondorengo belaunaldietarako garrantzitsua dela ikusten da. Eta horretarako, irakaskuntzan oinarritzko transmisioa egitea oso garrantzitsua da. Ondoren etorriko diren pausoak horren arabera segurtatuko dira.

**Mikel.-** Irakaskuntzan transmisio ona egiteak eta bertsolaritza lantzea ez du gerorako bertsolariak ziurtatzea soilik ekartzen, baita bertso entzuleak, adituak, egungo eta etziko gai-jartzaileak, epaimahaikideak, kritikoa, kazetariak... hori dena irakaskuntzatik abiatzen da.

**Aurrera begira, proiektu gehiago ba al daukazue?**

**Mikel.-** Bai. Adibidez, Bertsozale Elkartearekin pauso batzuk eman nahian gabilta. Ikerketa bat egin nahi da irakaskuntza mailan bertsolaritzaren igorpenean zein gabezia edo hutsune dauden jakiteko.

Talde bat osatu da eta irakaskuntza

munduan egin dagoenaz gain, funtzionamendua nola hobetu daitekeen aztertzen ari dira. Aho-hizkuntzaren transmisioa eta adierazpen baliabide horiek ikasleengan nola bizkortu ikusi nahi da.

Talde honek bilketa handi bat egingo du bertso aukeratu batzuekin eta irakasleentzako material berri bat aur-

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak jasoz.

Izena..... 1. Deitura.....  
 2. Deitura..... Helbidea.....  
 Tfnoa..... Herria.....  
 Posta Kodea..... Herrialdea.....  
 Ikastetxea..... Herria.....  
 Banku edo aurrezki kutxa.....  
 Sukurtsal helbidea..... Sukurtsal Zkia.....  
 Kontu korrontea  
 edo libreta

Entiratea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

**HARPIDETZA  
SARIAK**  
(BEZ Barne)

Hego Euskal Herria  
4.000 pezeta

Ipar Euskal Herria  
160 libera

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia.  
20.160

LASARTE-ORIA.  
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37.15.45.

Fax: 943/ 36.10.48

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

18



ESKOLA  
TXIKIEN  
KOOORDINAZIOA  
Gernika  
aldea

Argazkia Gipuzkoako festakoa da



# Eskola txikien koordinazioa

## Gernika inguruko eskola txikien esperientzia



**I**rakaskuntza lan kolektiboa bada ere, praktikan irakasleok bakardadean aurre egiten diogu gure eginkizunari. Hau, gehienetan horrela izanda, areagotu egiten da eskola unitarioetako irakasleengan. Hori zela eta, orain dela urte batzuk, Busturialdeko eskola txikietako maisu-maistra talde bat batzen hasi ginen zenbait arlotan amankomunean jokatzeko. Mintegi iraunkorra eratu genuen eta astean behin batu ohi ginen. Gaur egun mintegia desegina dagoen arren, bere sasoian zeukan

beharkizuna bete zuen, eta aurrera eramán genuen lanak, gure ustean, oraindik ere badu zeresana gaurko gelaren dinamikan; bada, alde batetik, nahiz eta gero eta eskola unitario gutxiago geratu, paradoxikoki gure Komunitateko eskoletan gero eta urriago da eskola unitarioetako gela presentzia, hau da, gela berean adinak eta mailak nahasturik aurkitzea; kasu batzutan beharturik (ikasleen urritasuna), besteetan gure ideietara egokituak (aniztasunaren abantailak).

Gure jarduna azalduko dugu, baliogarría den heinean etekina ateratzeko. Mintegiaren xedea komunikazioa bultzatzea zen, irakasleena zein ikasleen artekoa. Elkarlanean aritzeko asmoa genuen eta helmuga denon arteko komunikazioa zen. Hasieratik, iturburutzat, Freineten teknikak hartu genituen, Freinet maisuak elkarlaneko mugimendua eratu baitzuen eta, komunikazioa bultzatu nahian hainbat teknikaren aintzindaria izan baitzen.

Gure lana sei ataletan banatu genuen:

- 1.- Egonaldi eta irteera bateratuak.
- 2.- Korrespondentzia.
- 3.- Gairen bat landu amankomunean.
- 4.- Eskolen arteko aldizkaria.
- 5.- Irratsaioak.
- 6.- Baratza.

Goiko atalak malguak dira eta interesen arabera irakasleriaren inplikazio desberdina bermatzen dute elkarguneak izan litezkeelarik irakasle askorentzat.



## 1.- Egonaldi eta irteera bateratuak

“Kontzeptuak eta bizierak norbereganatzeko bide normala ez da eskolako azalpen eta froga hutsa, baizik eta esperientzien bidezko tanteoa, bide naturala eta unibertetsala baita”.

Gure hurrek ez zuten elkar ezagutzen, beraz edozein ekintzarekin hasi orduko, jarduera motibagarri eta esanguratsuagoa izateko, elkarren arteko ezagutza nahitaezkoa zen guretzat. Esaterako, korrespondentziak zentzu handiagoa izango zuen igorleak eta hartzaileak elkar ezagutzuz gero.

Egonaldiak eratzeko Euskal Komunitate Erkidegoko Foru Aldundiek duten aterpetxeen sarea aprobetxatu ohi genuen, egonaldiak bost egunekoak zirelarik.

Aldez aurretik ez genuen programa itxirik, bagenituen ordea gure helburuak: kontzeptualak alde batetik, baina batez ere, jarrerazkoak eta elkartasunezkoak.

Egonaldiak elkarren arteko hartu-emanak ahalbideratzen zituen. Talde itxiak sor ez zitezen jolasak erabiltzen genituen: joku kooperatiboak, jausgailuaren jolasak, umorezko rallya, altxorraren bila, gaueko sua eta abar.

Egonaldia une egokia zen aztura ezberdinak lantzeko ere, ikastetxean baino erraztasun handiago eta aukera oparagoak eskaintzen baitzuten, hala nola: norberaren garbitasuna, higiena, mahaian jateko ohiturak, ordena eta adiskideei laguntza ematea.

Bistan denez, egonaldiak aukera ederak ematen zizkigun: gure inguruaren ezagutza maila handitzeko, bai geografian bai gizakiei dagokienean; abiapuntua hurrengo lan ezberdinak burutzeko; euren aurrezagupenak ezagutzen ari ziren errealitatearekin erlazionatzeko ikasteko teknika franko.

Talde jardueraren barruan ingurune oso ezberdinak ezagutzeko parada edukitu genuen: euskal lurretan eta kanpoan; itsasaldekoak zein barnealdekoak. Bizimodu eta paraje anitz, alegia.

Ingurunea hobeto ezagutzeko espreski egonaldi-jarduera batzuk prestatu



ohi ziren. Horietako bat “orienting”a zen. Lehendabizi herriko plano eskuratzen genuen eta lortu behar ziren pistak herritik zehar jartzen genituen. Beste jarduera bat “umorezko rallya” zen. Joku hori burutzeko froga batzuk gaititu behar ziren eta haietako batzuetan bertako herritarren laguntza nahitaezkoa zen. Baita altxorraren jokoan aritzen ginenean ere, hurrek alboko elementuetan erreparatu beharra izaten zuten.

Egonaldia amaitu ondoren txostena egiten genuen, non burututako jarduerak azaltzen baikenituen. Liburuxka etxez etxe banatzen zen, familia guztiak egindako egonaldiaren programaz jakitun izan zitezen.

Ikasturtearen barruan irteera bateratuak eratzten genituen. Hauetan, egonaldietan bezalaxe, mota ezberdinetako lanak behar ziren aurrera eramateko: irteera egin baino lehen, egin orduko eta jarduera amaitu ondorengo lanak.

Lehenengo helburua beste lagunen herria ezagutzeko izaten zen. Adibide gisa, irteera bateko gidodia duzue honako hau:

- Ongi etorria eta agurra.
- Elkar ezagutza frontoian.
- Herritik zehar paseoa.
- Bazkaria eskolan.
- Bertako harrobira bisitaldia.
- Bi antzerkiren emanaldia.
- Dantzak eta jolasak frontoian.
- Batu eta agurra eman.

Lehenengo atal honi “turbina” deitzen genion: lehendabizi, martxan jartzeko hainbat ahalegin bideratu eta gauzatu behar genuelako eta, beste alde batetik, atal honek ematen zizkigun indar, aberastasun eta energiagatik.

## 2.- Korrespondentziak

“Inori ez zaio helbururik gabe lan egitea gustatzen, inork ez du robotaren modura jardun nahi, hau da, inork ez du gogoko besteen errutinetako pentsamenduetara makurtzea”.

Bi korrespondentzia mota gauzatzen genituen:

- Gelako lanen trukaketa.
- Bakarkako korrespondentzia.

### Gelako lanen trukaketa

Korrespondentzia mota honetan Busturialdeko eskola txikiak eta beste geografian eta hizkuntza eremuko eskolak parte hartzen genuen, hala nola: Leon, Kantabria, Asturias edota Granadako eskolak.

Korrespondentzia mota honek beste errealitate batzuk ezagutzeko, ikerketa berriak hasteko motibazioak eta gaztelera arloa lantzea (beti ere, zentzu komukatibo eta esanguratsu batean) ahalbidetzen zigun.

### Bakarkako korrespondentzia


Hasieratik planteatu genuen ekintza hau haurren arteko komunikazioa bultzatzeko baliagarria izan zedin; ez genuen derrigorrezko ekintza edo artifizial hutsa gura. Hori zela eta, korrespondentzia honek adiskidetasun eta sentiberatasun kutsua behar zuen. Honela izateko, aurretik ezaguna zen pertsona bati igorri beharko zizkieten beren eskutitzak. Planteamendu honek ikasturte hasierako egonaldia prestatzera eramaten gintuen. Egonaldiaren bidez hurrek elkar ezagutzeko zuten eta aukeraketa libreak erakargarriagoa bihurtuko zuen gelako ekintza hau. Beraz, korrespondentzia mota honi hau-

rrak elkar ezagutu ondoren heldu ohi genion.

Aipatzekoa da aukeraketa unean haurrek ez zutela erreparatzen kurtsoko mailetan.

Kurtsoarean barruan, planteamendu berriak sortzen ziren batzarraren bitartez bideratuak, hala nola korrespondentzia pertsonala mantentzea, hots, pribatua eta kontsekuenteki irakaslearen kontrolatik at izatea. Honek zera zekarren: eskolatik ez zuzentzea idaztoke-rrak, hutsune sintaktikoak, aurkezpenak... Hots, nolabait uko egitea eskolaren betebeharrari. Lortu genuen akordioa hauxe izan zen: eskolan egiten ziren eskutitzek zuzenduak izan beharko zuten; norbaitek eskutitz pribatuak gura izanez gero, bere kontura egin beharko zituen.

Korrespondentzia hiru eskolaren artean egiten zen. Modu honetan, astero, eskola batean korrespondentzia hartzen genuen eta beste bati idatzi.



### 3.- Amankomunean gairen bat landu

“Haurra ez da nekatzen bere bizimoduarekin bat egiten duen lanarekin baldin eta berarentzat erabilgarria eta esanuratsua bada”.

Lehendabiziko eginbeharra, guretzat, elkar ezagutzea zen, eta ondorioz aurreneko lana xede hori bideratzea zen; horretarako sortu zen lehenengo proiektua “Istoria pertsonala” izan zen. Jardun honek adar asko eduki ditzake: senitatekoek parte hartzea, tenporalitatea lantzea, ikerketa lanak egitea... Une berezi honetan guri gehien interesatzen zitzai-guna, norberaren informazioa jasotzea zen korrespondentzaleei aurkezteko.

Gure gelako batzarretan eztabaidatu genuen zein izan zitekeen hurrengo urratsa eta, sekuentzia logiko batean, norberaren herriaz gehiago jakitea izan zen. Ondorioz “Gure herria, ikuspegi orokorra” lanari ekin genion. Modu



honetan, lantzen genuena ez zen izan irakaslearen jakin-nahia asetzeko, baizik eta beste eskolako hartzaileei aurkezteko. Geroztik beste lan batzuk burutu genituen, informazioa trukatzeko ikuspuntutik eta beti elkarlaneko zentzuaz. Batzuetan korrespondentzalek zuzenean galdetzen ziguten zerbaiti buruz: “Gure herriko ohiturak”, “Euskararen jatorria”. Beste batzuetan, euren lanak abiapuntu izan ziren guk zerbait aztertze.

### 4.- Eskolen arteko aldizkaria

“Lanak motibazioa behar du beti”.

“Barlentate-otzu” izan zen gure aldizkariaren izena. Aho korapiloa bada ere koktel batean nahasturik herri guttien silabak ditu doinu atsegina lortuz. Herri bakoitzak atal baten ardura eramaten zuen, eta denak batuz unitate bat. Indarrak elkartu genituen helburu amankomunarekin.

Aldizkaria atal ezberdinekin osaturik zegoen: albisteak, testu libreak, ipuinak, olerkiak, denborapasak... Eskola bakoitzak orri konkretu batzuk egiteko ardura hartzen zuen, gutxi gora-behera sei orrialde. Esan beharrik ez dago malgutasunarekin jokatzeko gurela.

Gure etengabeko ebaluazioa egiterakoan erakargarritasuna faltan botatzen genuen; monokromatikoa zenez, aldizkariaren atalak ez ziren erraz atzematen. Hobekuntza batzuk sartu genituen aipatutako hutsuneak ekiditeko. Aldiz-

karia koloredun paperean argitaratzea erabaki genuen eta kolore bakoitza atal ezberdinari egokituko zitzaion. Azkenean, ondorengo atalak izan ziren:

- Ipuinak, testu libreak.
- Albisteak.
- Olerkiak, bertsoak.
- Denborapasak, txisteak.

Hasiera-hasieratik aldizkaria komunikazio eta lan tresna izateko xedearekin sortua izan zen, ziklo luzeko aldizkaria izan behar zuen. Ez zen gratatu ondoren bukatutzat jotzen genuen eskolako lana. Aldizkari aktibo eta ekintzen sortzailea gura genuen. Nahi honekin bi jardura zeuden bereziki:

A) Aldizkarian bertan jarduteko proposamenak agertzen ziren, hala nola, asmakizunak, ahokorapiloak, txisteak, letrazopak, gurutzegramak, hieroglifikoak, amaitu gabeko marrazkiak...

B) Irakasleok ale bakoitzari fitxa bilduma gehitzen genion, zuzenduta, batez ere une bakoitzean lantzeko ziren arlo ezberdinei begira, jardura osagarriak eginez. Era honetan aldizkaria ez zen beste lan ezberdin bati gehitzeko gehigarri bat, baizik eta espreski curriculumean sartzen zen, beste material curricular baten modura.

### 5.- Irratsaioak

“Edozeini gustatzen zaio bere lana aukeratzea, nahiz eta aukeraketa onena ez izan”.

Baliabide tekniko batzuk zeuden eta

hutsune asko; dena dela, konpondu ginen irratsaioak emititzeko. Irratsaioak zuzenekoak ziren eta emititzeko Gernikara joaten ginen, bertan PATEk zeukan emisorara. Eskolako kide guztiak joan ohi ginen eta ama batzuen laguntza nahitaezkoa zen. Kasu batzuetan eskolan entzuteko era ez zen oso egokia izaten eta beste leku batzuetara jo behar izaten genuen: andere-oaren kotxekeko irratia aprobetxatu, edo maisuaren etxera joan. Hemen ez ziren arazoak amaitzen, guk entzunaldi aktibo eta partizipatiboak nahi genituen eta horretarako, entzuleen parte hartzea nahitaezkoa zen. Telefonoa derrigorrezko tresna bihurtu zen, baina ez zegoen horrelakorik eskola batean ere.

Gure inguruneak ematen zituen errekurtsoak miatu eta tokian tokiko irtenbideak aurkitu beharra izan genuen: alboko taberna, denda edo berriro maisu-maistren etxea.

Antzeman daitekeenez, ekintza honek buruhauste bat baino gehiago ematen zigun, baina gaur urruntasunez begirata faltan hartzen dugu horrelako mugimenduren bat.

Irratsaioak eskolara antolatzen ziren: eskola bateko kideak igorleak ziren eta entzuleak, berriz, beste eskola batekoak, ikasleak eta gurasoak barne; ez zen eskolako lau horma arteko ekintza soilik izaten, jarduera irekia eta zabala zen.

Irratsaio guztiak zuzenekoak ziren eta irratsaio bakoitzaren ondoren, ebaluazioa eta gogoeten bidez aldaketak sartzen joan ginen. Entzuleen arreta mantentzea neketsua zen, batez ere Haur Hezkuntzako haurrena. Hori saihesteko eskaintzak sartzen genituen, galderak, telefonoaren bitartez parte hartzeko aukera eta irratsaioaren iraupena mugaratu genuen: gehienez ere hogeita minutu.

Ikusten denez, jarduera honekin, hizkuntza arloko curriculum barnean dauden beste edukiak ere lantzen ziren: kontzeptualak, jardunbidezkoak eta jarrerazkoak.

## 6.- Baratza

“Denok garaile irten nahi dugu. Porrota eragozle da eta gainera, kemena

eta grina zapuzten ditu”.

Pedagogiako zenbait abiapuntu aldaezin. Cèlestin Freinet. “Las invariantes pedagógicas. Guía práctica de la Escuela Moderna. Barcelona, Laia, 1972. (Lehendabizikoak 1964. urtean argitaratuak Frantzian).

Oso nabarmena izan ohi da eskola gehienetan lana banatzeko era: eskulan edo lan intelektual. Lehtasuna azkenengoari ematen zaio, eskularen kaltean: gure gizartean dagoen lan banaketa isladatzen da.

Gure eskolak nekazaritza giroan daude eta gaur oraindik, baserriko lanak bizirik darrai. Baratza helburu bikoitza jorratu nahirik sartu genuen eskoletan: alde batetik, gu murgildurik gauden ingurura hurbilpen bat egiteko, gu ere neurri txiki batean baserriarrak izateko. Aipatutako arrazoiez gain, bada oso begi bistakoa den beste bat ere; baratzen bidez era naturalean beste hainbat arlo jorratzen direla: matematika, hizkuntza eta inguruaren ezagutza, grafikoa, estatistika, portzentaiak, Kalkulu bizia, sailkapenak, behapenak...

Senitartekoengana jotzen genuen aholku bila, noiz zer erein, noiz batu, nolako lanak egin behar ziren eta abar jakiteko. Era honetan, senitartekoek eskolako eginkizunetan parte hartzeko aukera zegoen. Beste zubi bat eraikitze-ko aukera eskola eta familiaran artean.

Uztak oso oparoak ez baziren ere, aitzakia ederrak bihurtu genituen eskolan bazkariak prestatzeko gurasoekin

batera. Guk erein eta landutako patatak non amaitu gure mahaietan baino hobeto?

Seigarren atal honekin bukatutzat joenezake gure dinamikarako diseinatu genuen eskeletoa nola hezur-mamitu genuen azaltzeko egin dugun ahalegina.

Aurrera eraman genuen lana gorpuztu bazen, elkarlanaren ondorioz izan zen, bakarka ez zen posible izango. Lan era honetan somatu genuen aberastasunik handiena, lanen zentzuan, lan esanguratsuak egitean zetzan. Lanen atzetik benetako zertarako bat zegoen: komunikazioa. Ez ziren lan eskolastiko hutsak, non euren sormena eta bukaera gelako lau hormetan geratzen diren.

Gure lan dinamika berria, ekimen-gogoeta-ekimen, oso motibagarria zen.

Ikasleentzat oso aberatsa izan zen zentzu askotan, baina bereziki bizipen arloan: lagun, ingurune eta esperientzia berriak ezagutzeko eta bizitzeko aukera ematen zuen. Gogoan izan nekazaritza giroko haurren aukera batzuk murriztuak direla beste girokoenak baino.

Sei urtetan zehar jardun genuen mintegi honetan eta desagertzea azpiegitura arrazoiengatik izan zen, inolaz ere ez egiteko gehiagorik ez zegoelako.

José Luis Bardón eta Inmaculada Pascual

Herri Eskolaren Mugimendu Kooperatiboko kideak.







## Haurtxoteka Liburutegia baino gehiago

**Ikastetxe guztietan daude liburutegiak; batzuetan handiagoak eta besteetan txikiagoak, batzuetan liburu gehiagorekin eta besteetan gutxiagorekin. Baina, Eskoriatzako Jose Arana ikastolan liburutegiaren ordeza, haurtxoteka daukate. Oinarrian zerbitzu bera eskaintzen du, baina liburuez gain bideoak, zintak eta ordenagailua aurki daitezke. Eta... hori dena 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat!**

Eskoriatzako Almen ikastola eskualdeko haurrak biltzen dituen ikastola da, baina 6 urtetik gorako haurrentzat. Bitarte horretan, bakoitza bere herriko ikastolan gelditzen da, eta Eskoriatzakoak Jose Aranan. Hementxe ireki zuten otsailean haurtxoteka. Ikastolako zuzendari den Rosa Elizburuk komentatzen digun bezala "Almen ikastolako mediatekatik sortu zen ideia. Hango liburutegia mediateka bihurtu zen orain dela 6 urte. Liburuez gain, bideoak, zintak eta ordenagailua erabiltzeko aukera dago. Hori martxan jarri zen heinean, haur txiki-kin ere zerbait egin zitekeela ikusi genuen. Hemendik irten ostean lehengo maila egitera hara joaten dira, eta hemen ere zerbait egitea egoki ikusi genuen gauza batzuk ezagunak izan zituzten".

Asmo horrekin ireki zuten otsailean haurtxoteka. Jose Arana ikastolako goiko pisuan kokatuta dagoen gela argi bat da, herrira begira dagoen leiho handi batekin. Kolore biziz pintatuta dago, lurrean kuxin batzuk zabaldua daudelarik. Alde batean liburu txiki, handi, paperezko, kartoizko eta plastikozkoak; beste aldean musika eta ipuinez betetako zintak; parean ordenagailu handi eta berri-berria; eta aldamenean, isilik baina piztua izateko prest dagoen telebista. Ikastolan dagoen txoko berezia da haurtxoteka, betiko gelatik irten eta beste mundu baterako bidea irekitzen duena. "Gelan ere liburutegi propioa badaukate, baina honek beste gauza bat suposatzen du" dio Rosa Elizburuk. "Hona etortzean beste liburu mota batzuk hartzen dituzte. Adibidez, 5 urtekoek plastikozko eta kartoizko testurakoak hartzen dituzte, txikitik erabiltzekoak eta gelan nahiz etxean topatzen ez dituztenak".

Haurrei aukera hau emateko, ordea, lan egin beharra dago aurretik. Ekarri behar den materiala ere aztertu egin behar da, aukeratu. Alde honetatik, Rosak dioen bezala "2-5 urteko haurrekin zein aukera genituen ikusi genuen: ze liburu mota ekarri, ordenagailua bai ala ez, telebista bai ala ez... Ordenagailuari dagokionez, ez genuen arazo handirik eduki. Baietz erabaki genuen, gelan ere badaukatelako. Gelako gaiak lantzeko material didaktikoa eskaintzen du eta CD-Romarekin bidez ipuin interaktiboak ere bai. Hala ere, 2 urtekoak ez dira ordenagailuan ibiltzen. Eta telebistarekin ere

berdin, etxean eta leku guztietan bere esku daukate, eta hemen ere aukera hori ematea erabaki genuen".

Horrekin batera, haurtxotekan bertan zerbitzu desberdinak topa ditzakegula azaldu digu I-aki Agiriano bertako ardurudunak. "Alde batetik erabilera ludikoa dauka, liburuen mailegu zerbitzua eta ipuin kontaketa. Asteartean 2-3 urtekoei kontatzen diet, eta ostegunetan 4-5 urtekoei. Mailegu zerbitzuari dagokionez, astean behin etorri eta liburuak, zintak edota bideoak eramaten dituzte". Hasieran bideo zein liburuak, biek arrakasta handia izan omen zuten, baina orain liburuak







gehiago eramaten direla argitu digu I-akik. "Egia da irakurtzen ez dakitela, baina irudien bidez gidatzen dira adin honetan".

Haurtxotekaren bigarren erabilera gela barruko dinamikarekin lotua dago. "Metodologia bezala ikerketa bultzatzen dugu" dio Rosak "eta gelan lantzen diren gaiak ikertzeko materiala haurtxotekan topatzen dute. Adibidez, janariak, animaliak... aztertzen ari bagara, hemen gai horiei buruzko liburu, zinta eta bideoak ikusten dituzte".

Aukera hau guztia eskaintzeko euskarara soilik ez dira mugatu, ordea. Bideoa eta musika zintak euskarazkoak dira, baina liburuak ez. "Beste hizkuntzetako liburuak ere ekartzea erabaki genuen, bai gaztelarazkoak bai ingelesezkoak" dio I-akik. "Bideoak eta musika zintak euskarazkoak daukagu, baina ez dago material askorik. Edozein gai lantzen duzula, ikerketa egiteko garaian, oztupo horrekin topatzen gara. Horregatik, gaztelerazko zenbait dokumental ere badauzkagu".

Haurrak oso gustora hurbiltzen dira haurtxotekara. Euren ohiko gelatik irten eta betiko ordutegia aldatzen zaie, eta beste ohiturak batzuk sortzen zaizkie. Horixe da arduradunen helburuetako bat, gainera: ohitura batzuk hartu araztea eta euskarri desberdinak ezagutzea.

Horretarako, haurtxotekan I-akiren laguntza izateaz gain, Ekirena daukate. Haurtxotekako maskota da Eki, txokoari izpi berezia ematen dion argia. Berak aukeratzen ditu kontaktararako ipuinak, berak aurkeztu eta

ondoren I-akik kontatu.

Ekirekin batera haurrak dira protagonista haurtxotekan, baina gurasoak ez dira mundu honetatik kanpo gelditzen. "Gurasoei ere hona etortzeko aukera zabaldu diegu eta urtean zehar ekitaldi batzuk egiten dira". Ipuinaren nozioa ezagutzeko hitzaldi batzuk eman ziren, eta ipuin kontaketa ezagutzeko Antton Irusta kontalaria hurbildu zen. Horrez gain, guraso eta haurrak bateratzeko zenbait larunbategan haurtxoteka irekitzen dute. Goizeko 11.00tik 13.00era materiala ikusteko aukera izaten dute haurren gidaritzaren laguntzaz.

Haurtxotekaren izpiritua txikitatik irakurzaletasuna bultzatzea da, baina ez hori bakarrik, ikerketa dokumentalerako bidea ere zabaltzen du. Eta hori da azken batean mediatikaren helburua Ma-ole Ezenarrok, Almen ikastolako Mediatekako arduradunak dioen bezala. "Informazio iturriak hain ugariak direnez, gaur egun irakasleak ezin

du informazio guztia eman garai batean bezala. Orduan, eskolak bere papera aldatu egin behar du, ikasleak berak izan behar du informazio hori testatzen duena informazio iturri horien menpe ez egoteko, azkenean askatasun bat izateko". Hori du azken helburua, informazio iturri horiek dominatzea, erabiltzen jakitea, kontrolatzea. "Eta horrekin batera ikasmina edukitzea gauzak aztertzeko, ikertzeko. Horra iritsi behar dugu, ikasleak autonomikoki bere ikasketa prozesua egitera. Txikitatik hasi behar dute manipulatzeko, baina ez papera soilik, ordenagailua, bideoa... ere bai". Ma-olek dioenez, azken finean informazio iturriak paperaz gain, sistema eta euskarri desberdinetan daude, eta beste berri bat asmatzen bada, hura ere jarriko dute haurtxoteka zein mediatekan. "Ikasleak etorkizuneko jendea dira eta ezin dugu paperarekin gelditu. Euskarri desberdinak erabiltzen erakutsi behar diegu hoi menpe ez gelditzeko". Informazio eta metodologia guztia euskarri hauen bidez bideratua egongo da, eta garrantzitsua da haurrek horiek erabiltzen jakitea, informazio eskuratzen jakitea ondoren bereganatu eta norberak ideia batzuk edo beste batzuk hartzeko.

Helburu horrekin lehen pausoak ematen hasiak dira Jose Arana ikastolan haurtxoteka dela medio. Ikastolaren sinboloa den ezkurak ateratzen hasi dira, pixkanaka-pixkanaka Ekiren izpien laguntzaz haritz eder bat sortuko delarik.



## Bakegintzarako hezkuntza hizpide

Miguel Angel Zabalzarekin solasean

**M**iguel Angel Zabalzak Galiziako Santiagoko Unibertsitatean dihardu irakasle lanetan gaur egun, nahiz bere asmoa beti izan den lan praktikoetan aritzea. Berrikuntza pedagogikoko mugimenduetan lan handia eta zabala egin du eta garrantzi handikoa deritzon irakasleriaren formakuntza praktikoan jardun du azken urteotan. Artikulu eta liburu egilea "Didáctica y desarrollo curricular" ezaguna, "Calidad en la educación infantil" eta argitaratze arazo dagoen "La educación en actitudes y valores" idatzi ditu. Berak parte hartu zuen Bilbon Ikastolen Elkarteak eta Elkarrik antolatutako Bakegintzarako Hezkuntza Jardunaldi Pedagogikoetan eta horrela agertu zizkigun bere iritzi eta proposamenak.

**Oraintsu "bakegintzarako" bataiatu dugun hezkuntzaren ingurua azertu nahian gabilta eskoletan. Egingo al zeniguke lehen hurbilketa bat?**

Bakegintzarako hezkuntzaren gaia konplexutasun handiko gaia da. Beste zehar lerro guztiak konplexuak diren bezalaxe, bakegintzaren barnean ere era askotako logikak eta ideiak nahastu dira. Ez dakigu (zehatz-mehatz) politikaz, ideologiaz, erlijioaz, psikologiaz, metodologiaz edo hezkuntzaz ari garen hura aztertzerakoan.

Bestalde, planteatzen den testuinguru berak ere zailtasunak gaineratzen dizkio bakegintzarako azterketari. Bakeaz, elkartasunaz eta gatazken konponbideaz eskolan eman daitezkeen ekimen ildoak planteatzerakoan (hasi gertueneko gatazketatik eta abstrak-

zioa eginez mundu mailako bakea eta harmoniari buruz aritu arteraino) kontrolatzeko zaila den testuingurua osatzen du horrek guztiak.

Eta orain artekoa pittin bat konplikatzeke, gaia bera ez da batere razionala, nahiz eta autore askok razionala balitz bezala azertu nahi izan. Hala balitz, erraza litzateke gatazka pertsonalei nahiz kolektiboek konponbidea bilatzea, zergatiak azaltzea eta abar. Bakegintza, osasuna, ingurugiroa, sexuen arteko berdintasuna eta abarretaz aritzean elementu ez razionalen artean mugitzen gara, bizipenezko eta emozionalagoak diren elementuen artean. Eta honen arabera trataera eskatzen du gaiak.

Horrez gain, segituan hasten gara moralizatzen, eta honek kritikoa izateko aukerak murriztu egiten ditu.



## Hemen planteatzen den arazoa- rentzat erantzunik ba al duzu?

Bakegintzaren hezkuntzak erantzuna behar du eta hiru ataletan bereiztu dut gaia egin dudan analisisan. Lehendabizi DISKURTSOA, ondoren FORMAKUNTZA PROIEKTUA eta azkenik JOKABIDEAREN inguruko atala. Bakegintzarako edozein ekimenek hiru maila hauetan jardun beharko luke eta hirurak batean integratzeko ahalegina egin. Hau da, diskurtsoaren ideia eta helburuetatik abiatuta formakuntza proiektu baten egitura gauzatu beharko litzateke, honen ondorioz, bai indibidualki bai kulturalki, jokabide-tan aldaketa bat eman dadin. Bakegintzarako hezkuntza ezin da diskurtso hutsera, ideia multzo polit batera edo doktrina batera mugatu. Hau erraza bezain alferrikakoa litzateke. Ez luke trataera curricular soilean ere geratu behar. Aurreko bi ataletako elementuen eraginez ikasleen jokabidetan zerbaiten aldaketa probokatu beharko lukete.

## Beraz, zure proposamenaren definizioa...

Nire iritziz bakegintzarako hezkuntza abierarako postulatuak (Diskurtsoa) dituen heziketa ikuspegi bat da, zeinak formakuntza proiektua (curriculum) diseinatu eta burutzen duen, jokabide baketsu eta bakezaleen bila aritzeko eta sendotzeko. Horrelako baloreak zabaltzen dituzten jarrera eta mugimenduekin konprometitzera ino eramango gaituen hezkuntza, hain zuzen.

## Azalduko al diguzu diskurtsoari buruzko azterketa?

Nik era kritiko samarrean egiten ditut analisiak eta prozesu horretan topatu ditudan ahuleziak nabarmen-tzen saiatuko naiz batipat.

Diskurtsoari dagokionez hiru puntu ikutu nahi ditut: bakearen diskurtso-aren historia, bakeak eta baloreak behar luketen lotura, eta zenbait balo-reen definizio argi baten gabezia.

Bakegintzarako hezkuntza planteamendu curricularrean (zehar lerro

bezala) berria izan arren ez da inoiz berria izan hezkuntzan, betidanik egon baita heziketaren muinean.

Ez da beharrezkoa bada, hezkuntzari adjetibo gehigarriak eranstea hauek askotan izena beraren funtsa galarazten baitute. Hezkuntza ona bakerako hezkuntza ere bada.

Hau esanda ere, bakegintzarako hezkuntzak garai ezberdinak bizi izan ditu, xehetasun aberasgarriekin hornitzen joan den arabera.

## Nola hasi zen bakegintzarako hezkuntzaren ideia eta zeintzu izan dira bere etapak?

Bakegintzarako oinarritzko ideiak bukatu berriak ziren gerren ondorio latzak oso agerian zeudenean eta mugimendu antibelazista aldarrikatzen hasten den garaian jaiotzen da. Hastapeneko idazketa negatiboari, ikuspuntu ez gerrazale hari sona handia lortu duten osagarriak gehitu zitzaizkion: ez biolentzia, giza eskubideen defentsa, UNESCOk planteatutako internazionalismoa, multikulturalismoa (egun lehen-tasun handikoa hezkuntzan), gatazken konponbidea, tolerantzia eta

**"Bakegintzarako hezkuntza zentroko hezkuntza proiektuan uztartzea litzateke aukerarik idealena"**



Miguel Angel Zabalza

anti-arrazismoa.

Xexus Jaresek bost etapatan zatitu du bakegintzarako hezkuntzaren historia: 1- Munduko I. Gerraren aurreko eta ondorengo urteak. Orduan egiten ziren planteamenduetan eskola mundua bakea lortzeko bitarteko baliagarria izango zela uste zen, eta pentsamendu honetatik sortu ziren pedagogia internazionalistak.

2- Munduko II. Gerraren ondorena. NBE eta UNESCO bezalako erakunde internazionalak sortu ziren eta internazionalismoa eta kultura internazionalistak bultzatzean jarri zuten indar guztia. Orduan nagusitzen zen ideia hauexek: herrien arteko ezagutza areagotuz, elkarrenganako istiluak gutxitzeko aukera izango zela. Honekin batera desarmarean mugimendua ere agertu zen.

3- Bakea eta gerrari buruzko ikerketak egiten hasten direnean kokatzen da etapa hau. Hauen ondorioz eta zientzia sozialaz aparteko beste zientzia batzuen (psikologia, antropologia...) ekarpenez bakearen berdefinizioa sortu zen. Ja ez da bakea gerra gabeziaren ikuspegitik deitzen, pertsona eta herriak ondoen garatzeko funtsezko mekanismoa bezala baizik.

4- Etapa honetan bakegintzaren elika iturri gehienak ez biolentzia aldarrikatzen duten mugimenduetatik datoz, honek maila internazionalen



“ Ez litzateke bakeari soilik loturiko hezkuntza, solidaritatea, demokrazia, kulturen arteko errespetua, ekologismoa, elkarriketa, autonomia, tolerantzia, partaidetza-ren baloreak ere integratzen dituena baizik ”

suposatu zuenarekin. Gandhiren printzipioen eta biolentzia ezaren lider handien garaia da. Gatazkak konpontzeko irtenbide berrien ekarpena egin zuen garai honek.

5- Solidaritatea nabarmentzen da funtsezko printzipiotzat. Egoera zailetan ematen diren lankidetzak, gertatzen diren giza erbesteratze mugimenduak direla eta, multikulturalismoa izango da hezkuntzan eragin handia izango duena.

Nire ustez garai hau ere ahitu egin da, zenbait naziotan jatorrietara itzultzeko hotsak entzuten ari diren honetan. Edukietan, erreferentzietan, lemetan, izenetan eman den zabalkuntzaren ondoren, oinarriko ideien itzulera aldarrikatzen dute, hots, hezkuntza ona egitearena, denentzako eta kalitatezkoa.

**Bakegintza eta baloreen arteko lotura azpimarratu duzu lehen.**

Diskurtsoaren barnean aipatu nahi dudana bigarren puntua bakegintza eta baloreen artean egon beharko lukeen lotura da, funtsean bakegintzarako hezkuntzak baloreen ikuspegitik erakitakoa izan beharko lukeelako. Azken urteotan mugimendu pedagogikoak hezkuntza erakargarriagoa bilaka zezaten adjetiboak eranstean aritu izan dira hezkuntza bera nahiko ez balitz bezala; batean bakegintzarako hezkuntza zen, bestean tolerantziarako... Baina kontua hau da: hezkuntzaz esan nahi den guztia dagoeneko esanda dagoela eta adjetibatzen ahalegin horretan hezkuntza bera hondatu egin izan dugula uste dut nik, instrukzioarekin edo ezaguera batzuen transmisioarekin identifikatuz eta beste gainontzeko kontzeptuak baztertuz. Inor gutxik hartzen ditu bakegintzarako hezkuntza eta hezkuntza gauza beratzat. Hari nola deitu berdintsu izan behar luke, hezkuntza ona egitea izan beharko litzatekeelako helburua. Ezingo genuke utzi hezkuntza ona bakegintzarako hezkuntza egiten dutenen ardurapean soilik. Hezkuntza lanetan dabilen ororen eginkizuna da hezkuntza ona egitea, pertsona osotasunean hartzen duen hezkuntza, alegia. Beraz, ez

litzateke bakeari soilik loturiko hezkuntza, solidaritatea, demokrazia, kulturen arteko errespetoa, ekologismoa, elkarriketa, autonomia, tolerantzia, partaidetza eta besteekiko erlazio positiboen baloreak integratzen dituen baizik. Azken urteotan kongresu asko ospatu dira honen inguruan eta denetan ondorio beretsuetara iritsi dira: hezkuntzari buruz ari garenean, ez gara kulturaz bakarrik ari, baloreetaz baizik.

**Zertan inplikaturiko gintuzke irakasleok postulatu hori gureganatzeak?**

Irakasleak ez gara informatzaile edo azalpen emaile hutsak, hezitzaileak baizik, edozein mailerako hurrekin ari garela ere. Irakasle-hezitzailearen erretratua lausotzen hasita zegoen eta gure benetako rol eta funtzio profesionalatik urrunduta. Teorian aldaketaren beharra argi dago baina tamalez hori ez da isladatzen eskoletan praktikan. Irakasleria atzeraka egiten ari da hezitzaileak legez jarduten, bestelakoa hedatu zaigu gehiago. Hau da egungo erronkarik garrantzitsuenak bakegintzatik, ingurugirotik, solidaritaterik, hezkuntzaren edozein zatitaz datorela ere. Kontua da galtzen hasita dagoen espazioa berreskuratzea.

Bestalde, bakegintzarako hezkuntzak eta baloreek, erakargarriak diren lema eta sinbolo asko osatzen dituzte. Hauekin identifikatzeak edo ez identifikatzeak pertsonaren osagai intelektualetaz aparte, emozional, ideologiko eta konpromezuzkoetan ere badu eraginik hasieran aipatu bezala. Hemen ohar pare bat egin nahi ditut. Bakea sinbolo bihurtzen dugunean dator lehen arazoa. Sinboloak norberaren parametroi atxikiturik egoten dira, norberaren jarreran edo estiloan ermaten den gauza da. Orduan nola eskatu bakegintzarako hezkuntza egitea inoiz aita, ama edo pertsonal buru tolerantzia izan ez denari?

Bigarren oharpena lehen inguruan sortzen da. Leloek filiak eragiten dituzte, eta filiek fobiak. Talde batek lema bat bere egiten duenean, talde horrekin identifikatzen ez dena lema

horretatik ere urrundu egiten da. Hezkuntzan ere bakegintzaren hezkuntza talde baten ondarea bihurtzen denean, talde horrekin identifikatzen ez direnak lema horretatik ere aldendu egin ohi dira. Hau izan da mugimendu pedagogiko berritzaile askoren kasua. Irakasle ezkertiar, eskuindar, komunista, sozialista, era batekoa edo beste-koa izateak fobia ugari sortzeko bidea zabaldu dute. Azkenean eskola berregituratzeko sortua zen ideia talde murriztu baten eremuan gelditzen da, taldearekiko fobiak ideiarekiko atxekimendua baino indartsuago gertatu delako.

### **Zer esan nahi duzu zenbait balore argi definitu gabekoak direla diozunean?**

Baloreek kontzeptu zehatzak baino continuum baten antza handiago dute. Har dezagun tolerantzia. Zaila da tolerantziari atalasea jartzea eta hor sartzen dira jokabide oso tolerantreak eta tolerantzia maila bajuagoa duten jokabideak ere (honek arazoak ekartzen ditu ekitaldi praktikoak eratzeko garaian). Talde txiki erradikalizatuago batek errazago dauka atalaseak jartzea, baina hezkuntza komunitate osoari zabaldu nahi denetan, atalaseak negoziatzen ibili behar da, batzuentzat uste bezain lorpen positiboa ez ihardetsi arren. Hau izaten da mugimendu berritzaileen betiko borroka.

Diskurtsoaren problematikak moralizatzearekin zerikusi handia du. Irakasle bat ona edo txarra bihurtzen dugu bakerako programaren baten sartuta ala sartu gabe egotearen arabera. Ikuspegi moralizatzaile honek jarrera defentsiboak sortarazten ditu, ordea, eta beste diskurtso bat osatzen dute haien aurka joateko. Horrela, askotan aurrera egiteko partez, atzera edo stand-by batean erortzen dira. Eta zenbait ideia aurrerakoi, puskatzaile eta orijinalak talde txikitan hartzen dute indarra, baina batere ez dute instituzional mailan. Aldakuntza instituzionala transakzioaren bidetik etorri beharko lukeela deritzot.

### **Bakegintzarako hezkuntzaren**

### **bigarren osagaia formakuntzarako proiektua da. Zer proposatzen duzu atal honetan?**

Curriculum instituzio batean burutu nahi den formakuntza proiektuaren ideia da. Bakegintzarako hezkuntzaren diskurtsoa diskurtso hutsean gera daiteke, ezertan gauzatu gabe. Beste batzutan zenbat ekintza praktikoak eta solteak ere egin ohi dira, baina curriculum ez direnak. Bakearen eguna ospatzea ez dago gaizki, motibatzailerik izan daiteke, edota egunen batean pertsona beltz bat gelara ekar daiteke haurrei hitz egin diezaien. Hau ere ez dago gaizki, haurrei kontaktu desberdin baten aukera ematen dielako. Baina ez bata eta ez bestea, ez dira esperientzia curricularrak, ez baitaude jarraipenezko formakuntza proiektu batean uztarturik. Eta hau ezinbestekoa da benetako curriculum egiteko. Diskurtsoa osatzea baino zailagoa suertatzen da diskurtso hori eragilea eta integrala bihurtzea eskoletako lan egituraren barruan. Lan honetan aritzeko jakin beharra dago ez dela posible bakegintzarako hezkuntza, ingurugirakoa eta sexuen arteko berdintasunarena batera egiten aritzea, erreferentzi argiak faltako zaizkigulako. Helburua ez da horiek guztiak egitea, horietako bat aukeratze baizik. Horietako edozein da baliagarria, zehar lerroen planteamendu asko xurgatzeko gaitasuna dute eta gure eki-

**“UNESCOK  
dioen bezala  
bakea  
globalki  
pentsatu  
behar da  
baina lokalki  
landu”**



men pedagogikoaren ardatz bihur daitezke. Curriculumaren esentzia aukeraketan dago, bat aukeratu eta arrazoi-tu. Horretarako dauzkagu eredu curricularrak.

### **Azalduko al dituzu eredu curricular batzuk?**

Bakegintzarako hezkuntza eredu curricularran uztartzeko aukera bat baino gehiago dago. Gure gaur egungo curriculum materia edo disziplinetan zentratutako da, hau gure kultura instituzionalaren ispilu izaki. Gu irakasleok geure lanean adituak eta independienteki lan egiten ohitutakak bezala azaltzen gara. Profesionalen burokraziaren kultura deitzen zaio honi. Bakegintzarako berezko espazioa ireki nahi baldin bada, arazoak sortuko ditu zentroetan eta beste edozein berrikuntza instituzionalek nozitzen dituen fase berdina jasan beharko ditu.

Zenbait naziotan arazo edo proiektuetan oinarritzen den eredu curricularra dago indarrean. Eredu mota honetan proiektuak aurkeztu eta gero gauzatu egiten dira. Prozesu honetan agertzen diren zailtasunen konponbidean soluziobide, aukera, osagai eta materia ezberdinen integrazioa ematen da.

Whitaker, bakegintzarako hezkuntzan adituak dio, pertsonen garapene-

an oinarritzen den eredu dela koherentea den eredu bakarra. Gazteen garapen pertsonala da helburua, bizi-tzarako prestakuntza, norberaren oreka... Hots, kulturala edo zientifikoa baino hezkuntza sozio-afektiboa egitea proposatzen du.

Baditugu eredu sozio-kritikoak ere teoriarik oso koherenteak direnak baina planteamendu praktikoa gutxi sortarazi dituztenak. Eskolaren funtzio erreproduzitzaila edota kultura dominatzailearen inposaketa kritikagarria da, baina alternatibak zailak dira.

Lantegi nekeza da baina aukera batzuk aurkeztu behar dira. Hauetarikoa errazena baina eskasena jadanik badagoen materia baten eduki bihurtzea litzateke. Nik zientzia sozialeko irakasle bezala eragina dut ikasketak bideratzeko garaian, gerren zentzuaz erreflexionatu araziz, gerren beharrezkotasun ezaz, gerren ondorioetaz, munduaren garapenerako gerra beharra desmitifikatuz... baina hau ez da nahikoa.

Berezko espazioa egokitzea da beste aukera bat, hau da, bakegintza ostegunetan 11.00tik 12.00tara edukitzea. Curricularri definitutako materia izango litzateke orduan. Berezko hiztegia sortu, gaiari hurbilketa berezia eman, kultura berria osatu, bibliografia berria bildu... Berezko identitatea duen espazio baten antolaketa sustatuko lukeelako defendatzen dute batzuk posibilitate hau. Baina hau ere ez da nahikoa.

Ekologiagoa litzateke proiektuen bidez bideratzearen aukera materia, irakasle eta gune desberdinak integratuko litzateke.

Aukerarik idealena zentroko hezkuntza proiektuan ezartzea litzateke, eskolako ardatz berregituratzaile eta berritzaile bihurtuz. Honek programazio helburuak bakegintzan zentratuz, ekintza eta esperientzia guztiak bakegintzaren ildotik ikusiak izango liratekela esan nahi du. Horrelako aukera ohiko elementuz eratuko litzateke: bilatu nahi ditugun helburuen adierazpen argia, ondo hautatu eta definitutako edukiak eta asko zaindutako metodologia.

### **Sakonduko al zenuke pixkatxobat hau guztia.**

Eredu curricular ideal honen helburuak aukeratzeko Brindisiko konferentzian ingurugiroari buruz planteatu zirenak egingo nituzke nire:

- 1- Arazoaren kontzientzia hartzea.
- 2- Arazo horren inguruan dagoen ezagupen eta informazioa eskuratzea.
- 3- Arazori loturik dauden ekintza eta proiektuak gauzatzea.
- 4- Arazoak konpontzeko gaitasunak eta teknikak lantzea.
- 5- Konpromezua hartzea. Ez da nahikoa baketsua izatea, mezu horretaz kutsatutako ekintzetan parte hartzea garrantzi handigokoa da.

### **Edukiei eta metodologiei buruz ezer esatekorik ba al daukazu?**

Eduki asko azaldu dira bakegintzaren arloan: gerrak, sexismoa, nazionalismo itxiak, Iparra eta Hegoaren arteko desoreka, dibertsitatearen errespetua

**“ Irakasleok ez gara informatzaile edo azalpen emaile hutsak, hezitzaileak baizik, edozein mailetako haurrekin ari garelarik ere ”**

eta abar. Hauen guztien inguruan landu daiteke bakea.

Gakoa, ordea, metodologian ikusten dut nik. Argi eduki behar da jarrerak ezin direla erakutsi, ikasi egiten direla eta honetarako modurik seguruenak metodologiaren bidez ikasten dena da eduki esplizituekin baino.

Bestalde, jarrerak hiru osagai dituzte: ezagupenak, erreakzio emozionalak eta jokabideak. Hauek ikasleak bereganatu behar ditu klaseetan zehar bizi izandako praktikarekin. Whitakerrek zioen bakea ez dela helburua, bitartekoa baizik. Honi jarraituz, bakea nik neure ikasleei klasea emateko erabiltzen dudana errekurtsioa izango litzateke. Eta ildo horretan erakusten laguntzen didana. Irakasleak garen heinean kontuan hartu beharko genuke jarrerak hiru mailatan landu daitezkeela: informazioaren bidez, metodologiaren bidez eta geure eredu pertsonalaren bidez. Informazio ahalik eta aberatzena eskaintzen ahalegindu beharko dugu. Bestalde, metodologiaren bidez ohiturak eta egiteko erak transmititzen dira, erraza da ulertzea ikasleak zientifikoki zehatzak izango direla irakasleak zehatzak izaten lagundu badie, eta ez “zehatzak izan behar duzue” etengabe esatera mugatu.

Irakasleen ereduak zeresan handia du arlo honetan. Dakigunez gehiago ikasten da bakegintzaz bakearen liderren baten bizitza ezagutuz, ez razional erako diskurtsoak entzunez baino. Eliza berak iritzi zuen pertsonak erlijiosoki hezitzeke santuen bizitzak erakutsi behar zirela, horrela diskurtso abstraktoekin baino hobeto eltzzen zaiolako gaiari. Eta gainera ereduak eskaintzen dituelako.

### **Zer diozu jokabidearen aldaketari buruz?**

Bakegintzarako hezkuntzak pertsonen portaeretan aldaketak sortzen laguntzen duen heinean bakarrik hartzen du benetako zentzua. Bakegintzarako planteamendua norberarengandik kanpo dauden arazoei buruz zuzentzen badugu, beste batzuen arazoak bailitz ez luke honek nere jokabidean aldaketa handirik eskatuko.



Gerran dauden kasu batean guk uler ditzakegu, gure elkartasuna adierazi, gatazka aztertu, baina ez du azkenean aldaketa pertsonalik eskatzen. Errazagoa da Amazoniako deforestazioa ulertzea eta multinazionalekin haserre egotea, geure auzoa zergatik ote dagoen hain zikina aztertzea baino neroni txakurra ateratzen dutenatariko bat banaiz. Gauza bat da intelektualki uleratzea, eta beste bat ni erdian harrapatzen nauen arazoa planteatzea. UNESCOk dioen bezala, globalki pentsatu behar da baina lokalki landu. Bakea zehatzago, gertuago eta bertakoagoak diren terminoetan kokatuz egingo dugu benetako bakegintza eta gure erreakziorako mekanismoak egokitzen ikasiko.

### **Zerk segurtatuko luke bakegintzarako hezkuntza zuzena?**

Galdera batekin planteatzen du nik arazoa. Gure eguneroko bizimoduan zerk eragiten digu indarkeriazko egoeratan murgildurik egotea? Eta zer egin dezake eskolak nik neure jokabidea kontrolatzen ikas dezadan? Lau elementu proposatzen dizkizuet:

1- Norbere egozentrismoa gainditzea. Hau egin gabe ezinezkoak lirateke bakegintzaren beste gainontzeko elementuak. Transitibitaterako, hau da, besteen lekuan jartzeko eta bera bizitzen ari dena sentitzeko gaitasuna izatea da. Haur Hezkuntzatik lantzen

has daitekeena da eta lan sistema askorako bidea ematen duena; jolasak, pertsonaien irakurketa eta idazketa... Besteek pentsatzen eta sentitzen dutenaz arduratzea litzateke, eta hau da hain zuzen egungo hezkuntzan nabaritzen den gabeziarik handiena. Inork ez lioke beste bati tratu txarrik emango transitibitaterako gaitasuna baleuka.

2- Taldearekiko dependentzia eta estereotipoak gainditzea. Honek garapen erreflexiboa eta kritikoa lantzea dakar. Kanpotik datorren presioaren aurrean nor bere iritzia mantentzeko kapaz izan behar luke eta tolerantziaz onartu pentsamolde desberdinak. Honen adibide da gazteek sentitzen duten taldeko presioa. Irakasle batek ezingo du espero ikasle guztiek beti amen egitea, ez eta sutan jartzea haiengandik datorren iritzi kritikoengatik. Dibertsitatea potentziatu behar da beti, ikuspegi ezberdinak, planteamendu ezberdinak eta metodologikoki saiatu ikasleek aurkako posizioak bila ditzaten, iturri zientifiko desberdinetatik informazioa jaso dezaten eta abar.

3- Monolitismo ideologikoa gainditzea. Erlijioarekin, kulturarekin eta politikarekin zerikusia du honek, eta sarri askotan irakasleek beraiek mantentzen dutena. Tolerantzia, pentsakera kontrajarriak eta ekinbide ezberdinen bila ibili beharko genuke irakasleok, ez termino dogmatikoetan dilema piz-

tailetan baino.

4- Erantzun errutinarioak eta estimuloaren dependentzia gainditzea. Indarkeriazko jokabide gehienak pentsatu gabeko jokabideak omen dira. Gazte delitu egileen artean askok diote "ez dakit zer gertatu zen". Hemen ikusten da pentsatu gabeko estimuloa eta erantzunaren arteko dependentzia, eta hau da ekiditu beharko litzatekeena. Esan beharra dago lan honetan ari dela gizakia bere eboluzio osoan zehar. Geroz eta pentsatzeko eta arrazoitzeko gaitasun handiago izan, orduan eta konponbide errazagoa. Hau gatazken konponbideen estrategiekin loturik dago, planifikazioa ez da gure artean behar adina bultzatzen. Haur Hezkuntzan dago hedatuena seguruenik. Orohar, ez diegu gure ikasleei bere kasa pentsatzen eta lanak burutzen uzten. Platifikatzea pentsatzea da, eta pentsatzeak guztiz baldintzatzen du jokabide mota bat.

### **Nola ebaluatu daiteke bakegintzarako hezkuntza?**

Nire helburua ikasleengan arrazismoa gutxitzea baldin bada, hori ebaluatzea zaila iruditzen zait. Halere, ebaluatu beharra dago, baina batez ere bakegintzarako egituratu dugun programa. Irakasleok proposatutakoa eraginkorra izan ote da? Zer gertakizun eman dira? Ikasleen ahetasuna zenbatekoa izan da? Zer baloratu dute hobe-kien? Programa beti ebaluatu behar da eta ikasleak zertan aldatu diren aztertu. Baina ebaluaketa kalifikaketa bihurtzen denean, ezekoa ematen diot nik. Nola kalifikatu anarkista dela dioen ikaslea? Edo zein nota ipini ijitorik bere herrira etortzerik nahi ez duenari? Eta noski, kalifikazioa erantzunen arabera izango dela baldin badakite, erraza litzateke irakaslea engainatzea eta honekin nire helburuen aurka joango nintzateke. Irakasleak pertsona kritikoak, autonomoak, independenteak eta benetakoak izatea lortu nahi badut, ezin naiteke nire planteamenduak onar arazteko presioa egiten ibili. Azkenean ikasleak nik nahi dudana erantzungo baitu, eta horregatik nik ez nuke kalifikatuko.



## NERABETASUNA

Jaume FUNESen eskutik

**N**erabetasunaz hitz egiterakoan puntu desberdinak ukitu eta eztabaida daitezke, eta xede horrekin antolatu zuen Zarauzko PATEk hitzaldia. Bertan, Jaume Funes katalana izan zen hizlaria eta azaleratutako ideia nagusienak bildu ditugu hurrengo lerroetan.



Jaume FUNES

Nerabeez hitz egiten hasteko aniztasuna aipatu zuen Jaume Funesek. Nerabe desberdinak existitzen direla eta hori positiboa dela. Nerabe desberdin horiek eskolan daude eta denekin egin behar da lana. Ezin dira, guraso batek esaten zuen bezala, sagar erreak eta ustelak nahastu gabe eduki. Guztiak dira eskolako ikasleak, denak desberdinak, eta aniztasun hori oso positiboa da.

Bestalde, nerabe horiek eskolan daude, baina era berean gizartean. Eskola barruko mundua eta kanpoko ezin ditugu banatu. Neska- mutilak produktu sozialak dira, hots, oraingoak eta hemengoak dira, eta faktore sozial horiek kontuan hartu behar dira. Asteburuan egin dutena aintzat hartu behar dugu, horrek astelehenean edukiko duten gogoan, animoan, umorean... eta klasean egiten dutenean eragina izango baitu. Beraiei buruzko ezagutza eguneratu behar dugu behin eta berriz. Ezagutza eta behaketa sistema batzuk eduki behar ditugu errealitate hau ikusteko eta gertatzen dena ulertzeko.

Horretarako nerabeak bilakaera eta pa batean daudela kontuan hartu behar dugu. Nerabeak inguruak definitutako pertsonak dira, ez dira haurrak eta ezta helduak ere. Garai honetan laino batean sartzen dira, heldutasunera iristeko prozesu batean.

Eta pa haur azarazua izaten da, eta hemen bi gauzarekin egiten dugu topo: arazoak eta nerabeak. Garbi utzi behar da lehenengo nerabeak daudela eta gero arazoak, eta ez alderantziz.

Lehenengo eta behin, nerabeak dira eta guztiek dute nerabeak izateko eskubidea. Arazoak sortzen badizkigute ere, lehenengo nerabeak dira. Normalean arazo bezala begiratzen ditugu eta ikuspegi hori aldatu beharra daukagu. Pertsona batek ate bat ostikoz puskatzen badu, psikopata dela esaten dugu. Eta nerabe batek egiten badu, deskontrolatua dela eta aurrean daukan guztiari errespeturik ez diola. Ikuspegi hori da aldatu behar dena; lehenengo nerabeak dira, eta arazoak gero datoz.

Hurrengo pausoa nerabe izateak zein zentzu duen jakitea izango da, zeintzuk diren egiten dutena esplikatzen duten klabeak, egiten dituzten gauzen zentzua. Dena dela, hori guztia etapa batean daudela aintzat hartuz egin behar da. Eta gauza asko etapari lotuta daudenez, ez dira desagertuko, aldatuko, neska-mutil horiek etapatik atera arte.

Horregatik, nerabeekin lan egiteak pazientzia edukitzea eta itxarotea suposatzen du bereziki. Hau da, egiten ditugun ekintza gehienek ez dute eragin zuzena eta berehalakoa, etaparen bukaerara iristen direnean ikusten dira. Gure seme-alabak aldatuko dira, baina ez orain, gero baizik. Guk orain ideia batzuk transmititu behar dizkiegu eta gerora ikusiko dugu horien eragina.

Nerabeengana hurbiltzen den edozein heldu hezitzailea da, eragina du nerabe horrengan. Helduak nerabeentzako eredu gara, helduak izateko proiektuak, baloreak, irudikatzen

ditugu, gustatu ala ez, gutxiago edo gehiago, positiboki edo negatiboki.

### **Nolakoak dira nerabetasuneko aldaketak?**

Hezkuntza Sistema bilakaera ziklo-en arabera planteatuta dago, bizitzan etapa desberdinetatik pasatzen garelako. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, ez gaude beti hazten. Ezaugarri hauek direla eta, horretara moldatzen da hezkuntza. Etapa bakoitzaren berezitasunak ezagutu behar ditugu nola hezi jakiteko.

Nerabetasunera pasatzeko etaparen aurrean normalean zera galdetzen diogu geure buruari: nolakoa da helduekin duen erlazioa? Zertarako balio du irakasleak? Nolakoak gara gurasoak beraiekin? Zertarako balio dugu? Etapa berekoekin ere konparatzen ditugu, hots, beraien lagunekin. Eta pentsatzeko modua, beraien emozioak, afektiboki nolakoak diren ere aztertzen dugu. Nerabetasunak bizitzako zati garrantzitsu bat suposatzen du eta urte horietako esperientziak, bizipenak, aukerak, harremanak, ezagutzak... euren geroa baldintzatzen dute. Etapa horretan hezkuntzaren eragina ere nabaria da.

Gutxigorabehera egonezin puntu batean aurkitzen direla esan daiteke. Trantsizio etapa batean daude eta ez dira seguru sentitzen. Ez dira benetan pertsona sentitzen; zer naiz, zer izango naiz... aukeratu beharra daukate eta inguruneak baldintzatuta hartu beharreko erabakia da.

Garai honetan nerabeen mundua espresio emozional handiz betetako mundua da: oihu handiak, negarra, farra, bronka, parranda... Espresioak gidatzen du batez ere, baina faktore gehiago ere badaude, eta horiek ere kontuan hartu behar dira.

### **Helduekiko harremana**

Zer zerbitzu egiten diegu helduok nerabeei? Zer egiten dugu beraien ondoan? Helduok bi gauzatarako balio dugula esan daiteke:

1- Frontoiko horma bezala jokatzeko;



ko; pelota bota eta itzultzeko, hormarik gabe ezin baita bueltatu.

2- Gertuko pertsona bezala eredu izateko.

Baina nerabeekiko erlazioa ez da batere erraza. Ez dira haurrak eta ezta helduak ere. Etxean gauza batzuetarako haur kontsideratzen dira eta bestetarako ez. Haurrak ez direla erakusten

**“ Garbi utzi behar da lehenengo nerabeak daudela eta gero arazoak, eta ez alde-rantziz ”**

saiatzen dira eta helduekin norgehiagoka sistema mekanikoan sartzen dira. Materialki ezinezkoa da nerabeekin bizitzea eta norgehiagokarik ez izatea. Askotan eztabaidak nondik sortzen diren ere ez gara ohartzen. Guk heldu bezala zerbait arrazoitzen dugu eta horri heltzen diogu behin eta berriz. Nerabeek, ordea, ez dute onartzen. Bilatu, probokatu egiten gaituzte euren nortasuna baieztatuzko behar gaituztelako.

Zer gertatuko litzateke gazte bat modaren arabera jantziko ez balitz? Bere etxean bizi bada eta kresta jartzekoan inork ezer esaten ez baldin badio? Edo kalean inork begiratzen ez baldin badio? Eta inor ez denean berarekin sartzen, inor beldurtzen ez duenean? Miseria suposatuko luke, nerabeak probokatu beharra baitauka. Zertarako balio dio ikasle bati irakaslea probokatu nahi duenean honek kasurik ez egiteak? Gatazka hauek nerabeekiko harremanaren zati dira, erlazio hori osatzen dute. Eta guk gatazka horiek onartu egin behar ditugu.

Gakoa zera da: zenbat gatazka eduki behar ditugun eta zein gatazka mota. Ondorengo eztabaida gatazka horiek nola bideratu, zein estrategia erabili izango da.

Ikastetxean arau batzuk ditugu eta horiek betetzen ez baldin badituzte gatazka sortzen da. Horrelako kasuetan arau horiek baloratu behar ditugu.



Denak dira garrantzitsuak baina ez balore berekoak. Horregatik, gatazka noiz den komenigarria aztertu behar da.

Baina nola jokatu behar dugu horrelako kasuetan? Esate baterako, irakasle bat sintagma nominala zer den azaltzen ari denean, atzeko ilarako ikasleak "a ze txorrada" esaten baldin badu, zer egin behar du irakasleak? Borrado-rea hartu eta bota, ezer ere egin gabe aurrera jarraitu, haserretu, ikasketa buruarengana bidali, hurrengo egunean eztabaidatu gaia... Zein estrategia erabili behar da? Zer espero du nerabe horrek? Bere eremua markatu nahi duen gelako liderra al da? Ala momentu horretan nabarmendu nahi duen gizarajoa? Egoera hori modurik egokienean nola bideratu dezakegun jakitea da estrategiak bilatzea.

Horrek, batzuetan, komunikatzea eskatzen du: esplikatzeko, hezitzaile izatea. Guraso asko krisi puntu batera iristen dira; guraso txarra naiz, ez dakit zer egin, zer egin ote dut gaizki... eta antzeko pentsamenduak etortzen zaizkie burura. Irakasleak ere, bakoitza bere klasean sartu, eta horretara mugatzen gara.

Nerabeekin hitz egin behar da, gauzak esplikatu egin behar zaizkie, beraien jarrerak eta jokaerak ezagutu behar ditugu eta estrategiak elkar trukatu. Adibidez, nola negoziatzen duzu etxera etortzeko ordua? Bila joaten zara, lo egiten duzu, berandu etortzen baldin badira bronka botatzen diezu... estrategia horiek eztabaidatu behar dira etxean.

Eta eskolan gauza bera. Beraiekin egon, hitz egin, eztabaidatu behar dugu. Beraiegangandik gertu dagoen pertsona positiboa izan behar dugu, beraiek sentitzen duten arduratzen garenak, krisi egoeratan laguntzeko prest gaudenak, nerabeak gatazka bezala ikusten ez ditugunak. Gertutasuna, sinpatia, behaketa, egunerokotasuna, elkarbizitza egon behar du. Eskolan ikasleen arazoez hitz egiteko ordutegi finkoak daude, baina horrez gain, egun osoan zehar erlazioak lantzeko uneak daude.

## "Helduok nerabeentzako eredu gara, helduak izateko proiektuak, baloreak, irudikatzen ditugu"

### Nerabeak eta taldeak

Nerabeen taldeak ez direla existitzen esan ohi da, baina ez da egia. Nerabeak bakarka ez dira ezer, gauza gutxi egiten dituzte bakarka, beti erreferentzia talde batean jokatzen dute. Talde horretan euren arteko erlazioa dago. Taldea nerabeen lan eremuko hezkuntza espazio klabe bat da.

Taldea gazte berdinen sekta da, elkartasunaren espazioa, antzeko esperimentziak bizitzeko espazioa. Batu egiten dira eta arazoak dituztenean ere lagunengana jotzen dute. Inoiz ez dugu lortuko nerabe batek, helduen eta bere taldearen artean aukeratu behar badu, helduak aukeratzetik. Horrelako egoeren aurrean taldearengana hurbildu behar dugu eta taldea bideratu.

Taldeak desberdin jokatzen aukera ematen dio nerabeari: harro, langile, alfer, basati, umil, maltzur... Helduen aurrean, ostera, beti berdinak dira: serioak. Bigarren Hezkuntza oso eremu erakargarria zaie paper desberdinak jokatzen, familia girotik at, gauza berriak probatzeko gune egokia da.



## GUTUNAK

Zuen kezkak,  
iritziak,  
desadostasunak  
itxaropenak,...  
adierazteko  
lekua izan nahi  
du.



# Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle  
euskaldunon aldizkarira

EKAINA



## TESTU LIBURUAK DOHAIN ESKURATZEKO LEGE PROPOSAMENA

Estatu mailako Guraso Elkarten Konfederazio Nazionalak (CEAPA) lege proposamen bat egiteko asmoa du. Nafarroako Herrikoa Guraso Elkarten Fderazioa ere Konfederazio honen barruan dago, eta berak eta ekimen horri heldu dio. Lege proposamena zeran oinarritzen da: derrigorrezko hezkuntzako testu liburuak dohainik izatea. Diputatuen Kongresuak lege proposamena eztabaidatzeko 500.000 sinadura behar dira, eta horretarako kanpaina bat hasi dute. Helburua sinadura kopuru hori sei hilabetetan lortzea da.

Hezkuntza Liburuaren Editoreen Elkarte Nazionalak emandako datuen arabera, Lehen Hezkuntzako liburuak 8.000 eta 9.000 pezeta artean kostatzen dira. UBiko liburuak, berriz, 12.000 eta 13.000 pezeta bitartean.

## UEUko Pedagogia ikastaroak

Aurten ere UEUk ikastaro anitz emango ditu Baiona eta Iruñean uztailean zehar. Pedagogia sailari dagokionez eta aurreko urteetako ildoari jarraiki, normalkuntzaren inguruan antolatu dira. Uztailaren 14tik 18rako astean gauzatuko dira Iruñean.

Ikastaroen helburua hizkuntza eta kulturaren normalkuntzaren berri emateaz gain, errealitate desberdinetan eragiten duten arazo eta gaiak lantzea da. Honekin batera, normalkuntzarako oinarriko informazioa aztertu eta igorriko da, eta lantzen ari diren esperientzien berri eman bertara ekarriz esperientzia hauen eragileak. Hizkuntza eta kultura, eta bakoitzaren azterketa eta ekarpenetatik abiatuta, normalkuntzan nola uztartzen diren agertzea da ikastaro hauen asmoa.

### Egitaraua:

**Uztailak 14, astelehena: Euskararen Normalkuntzarako Urratsak Eskolan**

9.30.- Hizkuntza ereduaren sorrera, bilakaera eta egungo egoera.

Itziar Idiazabal (UPV/EHEko Filologia Fakultateko irakasle katedraduna)

11.30.- UEUko sarrera hitzaldia

16.30.- Lehenengo eta bigarren hizkuntzen jabeakuntza.

Iñaki Pikabea (UPV/EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea)

**Uztailak 15, asteartea: Euskararen Normalkuntzaren Inguruan landutako proiektu eta esperientziak**

9.30.- Eskoriatzako Irakasle Eskolak Hezkuntza Sailarekin burututako esperientziaren azalpena eta ebaluaketa

11.30.- Nafarroako Sortzen-EKB taldeak burututako esperientzia

Rikardo Ederra (Sortzen-eko koordinatzailea eta ILZko irakasle laguntzailea)

16.30.- Proiektu hauetan esku hartu duten ikastetxeen balorazioa

**Uztailak 16, asteazkena: Euskal Kulturaren Normalkuntza Eskolan**

9.30.- Kultura hezkuntza eta Euskal Curriculum

Xabier Garagorri (UPV/EHUko Pedagogia Fakultateko irakasle doktorea)

11.30.- "Eleaniztasun goiztiarra" proiektuaren azalpena normalkuntzaren ikuspegitik

Xabier Garagorri eta Itziar Elorza (Ikastolen Elkarteko hizkuntza arloaren arduraduna)

16.30.- "Jalgi": euskal kulturaren zibermerkaturatzea

Joxerra Aizpurua eta Andoni Sagarna (Jalgi-ko koordinatzaileak)

17.30.- "Kantutik jolasera"

UEUko musika mintegia

**Uztailak 17, osteguna: Euskal Curriculumaren inguruko proposamenak**

9.30.- Elhuyar: Euskal Herriko Fauna (Ornodun lehortarrak), liburua eta CDA

Jon Larrañaga

11.30.- "Euskal curriculumaren osagarriak ordenadorearen laguntzaz"

GIEko Hezkuntza Informatika Taldea

16.30.- "Ikaspilota" proiektua

Edu Berasategi eta Asier Mugika (Araba eta Bizkaiko Ikasplota proiektuaren arduradunak)

**Uztailak 18, ostirala: Euskararen Unibertsoa**

9.30.- Hizkuntza Normalkuntzaren Plangintza Orokorren azalpena. Euskararen Unibertsoaren Jardunaldien ondorioak eta urratutako bidea.

Joxe Jabier Iñigo

11.30.- Hizkuntzaren normalkuntza eskolan

Lore Erriondo Korostola

16.30.- Astearen ebaluaketa eta hurrengo ikastarorako proposamenak

**Matrikula epea: ekainaren 2tik 30era.**

Informazio gehiago:

Baiona, 11 J. Laffitte Karrika.  
Tel.: (07-33) 5 59 25 60 56

Bilbo, Concha Jenerala 25, 4.  
Tel.: 94- 421 71 45 / 421 46 79



## X. GIPIIZKOAKO ESKOLA TXIKIEN EGUNA ARRAKASTATSUA IZAN ZEN



Ekainaren 8an ospatu zen Adunan Gipuzkoa Eskola Txikien festa eguna. Bertan Gipuzkoako 26 eskola txikitatik 19 eskolek parte hartu zuten egun osoan zehar. 26 eskola hauetan ia 900 ikaslek ikasten dute gaur egun eta 70 irakasle aritzen dira guztira.

Aurtengo edizioaren leloa "Eskola txikiak bizirik" izan da, eta bizitasun hori aldarrikatu nahi izan dute. Jendeari herri eta auzo txikietan eskolak mantentzeko ekimen garrantzitsua dagoela jakin arazi nahi izan diote. Udalak, gurasoek eta irakasleak, guztiak gogor ari dira eskola txikien

alde lanean. Udalaren ikuspegitik, herri eta auzo-guneak bizirik eta dinamikoak mantentzeko ezinbestekoak zaizkio eskolak. Eta Euskal Herrian, bereziki garrantzitsuak dira ingurugiroa, ohiturak, euskararen erabileraren eta beste hainbat arlotan garrantzia dutelako.

Gurasoek bestalde, kalitatezko heziketa nahi dute, eta gaur egun eskola txikiek eskola handiek dituzten zerbitzuak herrian bertan eskaintzen dituzte: ingelesa, soinketa, 2 urteko gela eta abar.

Irakasleak ere oso harreman estuak lortzen dituzte hurrekin zein gurasoekin. Haurren jarraipena oso gertutik egiten dute. Haurren artean oso dinamika aberatsa sortzen da eta ingururikiko duten erlazioa ere aberasgarria da.

Abantaila hauek denak aintzat hartuta 1988z geroztik Gipuzkoako Eskola Txikien Mugimendua ilusioz ari da lanean. Eta lana egiteaz gain, urtero-urtero festa giroan elkartzen dira. Horrela, aurtengoa, Adunan bildu ziren eta oso balorazio positiboa egin zuten, gainera. Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburua ere hurbildu zen festara. 12 urte arteko haurrentzat eskola txikiek iraungo dutela baieztatu zuen.



## HONTZA

## XALBADOR



### Literatura unibertsaleko beste hiru liburu euskaraz

Literatura Unibertsala izeneko bildumaren 59, 60 eta 61. zenbakiak dagoneko euskaraz irakur daitezke: Pierre Ambroise Choderlos de Laclosen "Harreman arriskutsuak", Herbert George Wellsen "Gizon ikustezina" eta Sadeko Marquesaren "Justine edo bertutearen zorigaitzak" dira aipatu liburuak. Jon Muñoz Otaegi, Miren Arratibel eta Mikel Hoyos Sein izan dira itzultzaileak.

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarein Elkarteak (EIZIE), Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Ibaizabal argitaletxeak sustatutako proiektua da literatura unibertsaleko liburu esanguratsuak euskaraz eskaintzekoa. Hemendik urtebeterako, beste bost liburu argitaratuko dituzte.


## EMAKUNDE SARIAK



Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde lan egiten duten pertsona eta entitatei saritzeko sortu ziren Emakunde Sarien zazpigarren edizioak, Hezkuntza eta Kirol arloak konstantan hartzea du nobedaderik aipagarriena.

Antolatzaileen ustez, azken urte hauetan hezkuntza arloan asko aurreratu da eta horregatik, sari berri honekin profesional eta entitateek sexuarengatik diskriminazioak diren eduki formatzaileak aldatzeko lagungarriak izan daitezkeen materialak argitaratzen jarraitzea bultzatu nahi da

## LEIOA ETA OION, EUSKALTZALEEN BILGUNEAK



Euskaltzaleen bilguneak bihurtu ziren Leioa eta Oion "Ibilaldia" eta "Arabaren Euskaraz" en ospakizunetan. 130.000 ibiltari inguratu ziren maiatzak 25ean ospatu zen 18. Ibilaldira. Bidean zehar eman ziren ikuskizun ugariak eta ateri egoteak festaren biribiltzea ekarri zuten inoiz baino jendetza handiago bildu zen honetara. Nobedadea izan zen Daniel Tamiyo eskultoreak diseinatutako testigua hango euskal hiztunen eskurik esku ibili baitzen zirkuitoari bi bira eman arteraino. Garai batean Gobela izeneko ikastola sortu zuten familiei egindako omenaldiarekin hasi bazen jaialdia, datorren urterako lekukoa Larramendi ikastolakoei paseaz amaitu zen aurtengoa.

"Oion hegoak, Oion zangoak, Oion geroan, lur gorrian...pausok marraztu bitez"

zioten "Arabaren Euskaraz" en aldarrikapen kanturako Jon Maia bertsolariak jarritako hitzek. Urte batzu tartean itzuli berria da ospakizuna Oionera berriz ere eta lehengo aldi hartatik Arabako Errioxan euskara gorabidean dagoenaren seinale da gaur egungo bertako euskaldun kopuruaren gorakada. Euskal Herri osotik etorritako 40.000 euskaltzalek baino gehiagok lagundu zuten lantegi horretan amore ez emateko. San Bizente ikastolako antolatzaileak pozik agertu ziren 17. ekitaldi honetako festaren giro eta emaitzarekin. Orain hamalau urte egoitzaren berrikuntza lanean erabili baldin bazen han jasotakoa, aurtengo bilketaz baliatuko dira DBHrako behar duten egoitza eraikitzeko.

## A eta B ereduetatik D eta B ereduera

### Donostiako San Jose de Calasanz ikastetxea

**I**kastetxe publiko gehienak A eredu eskainiz sortu ziren. Urteek aurrera egin ahala, ordea, B eredu ere gehitu zen eta Aren gainera jarri gainera. Eskariak, hala ere, ez ziren horretan gelditu. B ereduko matrikulazioen gorakada ikusita D eredu ere eskaintzen hasi ziren asko, eta horietako bat dugu Donostikoa San Jose Calasanz herri ikastetxea.

San Jose De Calasanz Donostiako Altza auzoan kokatzen den herri ikastetxea da. Orain dela 14 urte, hau da 1983. urtean, B eredu eskaintzea era-

baki zuen, A eredu ere mantentzen zelarik. Auzoko eskaria zela eta, B eredu nagusi bilakatu zen eta 1995ean A eredu desagertu egin zen.

Bertako irakasleriak "murgiltze sistema" ezartzea erabaki zuen 1995-96 ikasturtean. Handik aurrera, beste neurrien artean, bai idazketa eta bai irakurketa ere euskaraz lantzea hautatu zuten eta oso emaitzak onak lortu zituzten gainera.

Dena den, Altzako beharrak ezagutu nahian, bertako biztaliaren iritzia jaso nahi izan zuten. Altzako eskariaren neurria egokitutako eskola eskaintzea zen helburua.

Horretarako, orain dela hilabete batzuk eskola-adineko seme-alabak dituzten familiengana jo zuten beraien helbururako interesgarriak izan zitez-


keen datuen bila.

Lan honetarako auzoaren egoera kontuan hartu beharra izan zuten. 60ko hamarkadaz geroztik, jende ugari joan zen Altzara bizitzera, eta gaur egun familia gazteek osatzen dute gehiengoa. Aipagarria familia hauek dutela beraien seme-alabentzako ikastetxea aukeratzekoan Donostia alde- ra jotzeko duten joera. Horrekin loturik D ereduaren aldeko zegoen eskari- az oharturik ez zitzairen bidezkoa iruditu altzatarrak auzoan bertan eredu horren eskaintza ez izatea.

Ondorio hauek guztiak auzokideen artean pasatako inkestetatik atera zituzten eta D eredu eskaintzearen inguruan zegoen eskari nabarmena kontuan izanik, eskaintzea erabaki zuten.

1.- A B D hizkuntz eredu ezaugarriak ezagutzen al dituzu?	Bai, oso ondo.	%70
	Zerbait.	%28
	Ezer ez.	%2
2.- Etxeko harremanetan zer hizkuntza erabiltzen duzue?	Erdera.	%99
	Euskara era erdara.	%1
3.- Familiako norbaitek ba al daki euskaraz?	Bai (gehienetan ama)	%40
	Inor ez.	%60
4.- Familiako norbaiten artean ba al dago harremanik euskaraz?	Bai.	%25
	Ez.	%75
5.- Zer garrantzia ematen diozu seme alabek euskaraz jakiteari?	Ezinbestekoa.	%35
	Nahikoa.	%65
6.- Aukeratzen den ereduak seme alabak bere ikasketetan laguntzea baldintzatzen du?	Ezer ez.	%25
	Asko-nahiko.	%75
7.- Zure ustez zein eredu betetzen ditu hobekien zuk dituzun espektatibak?	D.	%35
	B.	%65
8.- Zer iruditzen zaizu etxetik hurbil dagoen ikastetxe publiko batean D eredu irekitzea?	Oso ondo.	%80
	Beste aukera bat.	%20





# KIRIKO BILDUMAREN bi ipuin berri



Erabilera askotako  
eranskailuekin osatuta


IRUÑA: uztailak 14-26

matrikula-epena  
ekainaren 2tik  
ekainaren 30era

25

25.  
UDAKO IKASTARROAK

25.  
Urteurrena



Udako Euskal Unibertsitatea

Telefonoak:

Baiona: (07-33) 559256056

Bilbo: 94-4217145/ 4214679

BAIONA: uztailak 7-12